

**BIZKAIKO UDALETAKO  
EMAKUME ETA GIZONEN  
ARTEKO AUKERA  
BERDINTASUNEKO  
POLITIKEN ORAINGO  
AZTERKETA**

**2004**



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea

**Diputación Foral  
de Bizkaia**

Gabinete del Diputado General



**Bizkaia**

**BIZKAIKO UDALETAKO EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO AUKERA  
BERDINTASUNEN POLITIKEN ORAINGO AZTERKETA**

**AURKIBIDEA**

1. **SARRERA** ..... 5. or.
2. **APLIKATURIKO METODOLOGIAREN AZALPENA**..... 14. or.
- 2.1. DOKUMENTU-AZTERKETA..... 15. or.
- 2.2. METODOLOGIA KUANTITATIBOA: INKESTAK..... 15. or.
- 2.3. ADITUEN MAHAIA..... 20. or.
3. **GAI-BLOKEAK**
- 3.1. BIZKAIKO UDALEN TIPOLOGIA ..... 21. or.
- 3.2. IKERKETAN PARTE HARTU DUTEN UDALEN  
TIPOLOGIA..... 25. or.
- 3.3. AUKERA BERDINTASUNAREN ARLOKO EGITUREN  
AZTERKETA..... 29. or.

**3.4. AUKERA BERDINTASUNAREN ARLOAN UDALETAN DAUDEN ADMINISTRAZIO EGITURAK..... 34. or.**

- 3.4.1. Kuantifikazioa eta azalpena
- 3.4.2. Funtzioak
- 3.4.3. Ezarkuntza maila
- 3.4.4. Ezarkuntzan eragina duten aldagaiak

**3.5. AUKERA BERDINTASUNAREN PLANAK..... 50. or.**

- 3.5.1. Aukera Berdintasuneko Planetarako hurbilketa
- 3.5.2. Aukera Berdintasuneko Udal Planen inplementazioaren azterketa kausala

**3.6. AUKERA BERDINTASUNENKO POLITIKAK ..... 60. or.**

- 3.6.1. Bizkaiko Udaletako Aukera Berdintasuneko Politiken azterketa
- 3.6.2. Aukera Berdintasuneko Politiken zeharkako erlazioen azterketa
- 3.6.3. Aukera Berdintasuneko Politikak eta horien inplementazioan eragina duten aldagaiak

4. <b><u>HIPOTESIEN EGIAZTAPENA</u></b> .....	85. or.
5. <b><u>LABURPENA ETA ONDORIOAK</u></b> .....	89. or.
6. <b><u>JARDUKETA PROPOSAMENAK</u></b> .....	102. or.
7. <b><u>BIBLIOGRAFIA</u></b> .....	122. or.

**ERANSKINAK**

## 1. SARRERA

Gaur egun, emakumeek ez dituzte gizonen aukera berdinak, inongo gizartetan. Jardueraren sektore guztietan, emakumeek zailtasun handiagoak dituzte lan-merkatuan sartzeko, zuzendaritzako postuak lortzeko edo euren lanaren onarpena eskuratzeko, ordaindutako lana lortu ondoren. Gainera, langileak diren emakumeak txarren ordaindutakoak eta errutinazkoenak diren okupazioetan pilatuta daude. Gizartearen edozein arlotan egindako estatistikek horixe jartzen dute agerian, emakumeek eta gizonen lan berean duten banaketa, oreka eta partaidetza konparatuztik ondorioztatzen denez.

Esan daiteke, horrenbestez, faktore batzuek oraindik ere emakumeak diskriminatu eta nekez gainditzeko moduko hesia jartzen dutela.

Hala eta guztiz ere, nazioarteko erakundeek onartu egin dute gizonen eta emakumeen arteko benetako desorekak daudela, eta horrela, Generoko Politikak abiatu dituzte; horien helburua argia da  *legeetan eta arauetan jasotako eskubideen nahiz aukeren benetako ezarkuntza zailtzen dituzten oztopoak ezabatzea.*

**Aukera berdintasuneko politikak**, hain zuzen ere, erakunde publikoek emakumeen eta gizonen arteko gizarte desberdintasuneko egoerak arintzeko eta konpontzeko abiatutako neurri politikoak dira. Horrela, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak apurtu egiten du

generoen arteko ohiko rol banaketa eta, beraz, genero biak berdindin baloratzen ditu. Generoko berdintasun kontzeptuaren barruan, gizaki guztiek desberdinak izateko duten eskubidea sartzen da, baina gizartean, politikan, ekonomian eta abarrean tratamendu desberdina jaso barik.

Aukera berdintasunaren printzipioa emakumeei buruzko gaitzat hartu da beti. Horrela, berdintasunaren arloko lerro politiko guztiak inguru horretako erakundeei lotuta zeuden bakarrik. Emakumeen aldeko ekintza positiboak, gizonetikiko desberdintasunak arintzeko garatzen direnak, jarduketarik ohikoenak izan dira.

Gaur egun, ikuspegia zabalagoa da; izan ere, orain gizarte modernoak eratzeko funtsezko elementua da, bi sexuen partaidetza orekatuarekin, eta beraz, horren helburua gizarte osoari, gizonei eta emakumei, mesede egitea da.

Aukera berdintasunaren arloko jarduketaren formek azken 20 urteotan Europan eta Espainian izandako bilakaera hauxe izan da:

- legegintzako diskriminazioa ezabatu
- ekintza positiboak aplikatu eta garatu
- **mainstreaming**aren estrategia garatu



Mainstreaming kontzeptua garapen prozesuan dagoen arren, ez da erraza estrategia horren ezaugarri guztiak definizio baten barruan jasotzea. **Europako Batzordeko aditu taldeak** emandako definizioa honako hau da:

*"Generoko mainstreaminga prozesu politikoan antolaketa (berrantolaketa), hobekuntza, garapena eta ebaluazioa da, generoko berdintasuneko ikuspegia politika guztietan sartzeko, maila guztietan eta etapa guztietan, neurri politikoak hartzeko ardura duten eragileen bitartez."*

Gero eta indar handiagoarekin, emakumeen eta gizonen Berdintasun Politikak etengabe bilakatzen ari diren eremuak dira, herrietako arlo publikoaren barruko eremu guztietan. Horrela, nazioarteko konferentziak eta horien erabakiak berdintasun politiken aurrekariak dira.

Nazioarteko erakundeak 1975ean hasi ziren munduko emakumeen egoera aztertzen, **Mexikon Emakumearen Nazioarteko Urtea** ospatu zenean. Geroago, **Kopenhageko** (1980) eta **Nairobiko** (1985) konferentziak egin ziren. Ondoren, **Pekinen egindako Emakumeei buruzko IV. Mundu Konferentziak** (1995) gobernuen konpromisoa ezarri zuen, generoko diskriminazioa ezabatzeko.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa arau juridiko askotan jasota dago. Horien artean, garrantzitsuenak honako hauek dira:

📄 **Emakumearen aurkako Diskriminazio Forma guztiak Ezabatzeko Konbentzioa**, NBEko Biltzar Nagusiak 1979ko abenduan onetsitakoa, eta bertan, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioa aldarrikatu zen.

📄 **Europako Parlamentuak** 1982an onetsitako ebazpenean, **Ekintza Positiboko I. Planeko** helburuak ezarri ziren, 1982-1985 aldirako, eta orduetik hona bost plan egin dira.

📄 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna Europar Batasuneko funtsezko printzipiotzat ezarri zen, 1999ko maiatzaren 1ean **Amsterdameko Ituna** indarrean sartu zenetik.

📄 Estatu mailan, berdintasun printzipioa **Konstituzioko 14. artikuluan** jasota dago: "Espainol guztiak berdinak dira Legean, eta euren artean ezin daiteke egon jaiotzaren, arrazaren, sexuaren, erlijioaren, iritziaren edo beste edozein baldintza pertsonal nahiz sozialen eraginezko diskriminaziorik".

Bestalde, **Emakumearen Institutuak** Aukera Berdintasuneko lau plan sustatu eta koordinatu ditu; gaur egun, **Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako IV. Plana (2003-2006)** dago indarrean, eta hori Ministroen Kontseiluak onetsi zuen 2003ko



martxoaren 7an. Bertan, Emakumearen Institutuaren jarduketa lerroak ezarri ziren, lau urte horietarako, esku-hartze politika guztietan generoko berdintasuna sartzeko eta gizarte bizitzaren arlo guztietan emakumeen aurrerakuntza sustatzeko, arlo batzuetan euren presentzia oraindik ere ez baita nahikoa.

📖 **Euskadiko Autonomia Estatutuko** 9.1 artikulua berdintasun eskubidea eta sexuaren araberako diskriminaziorik ez edukitzeko eskubidea ezarri du. Gainera, bertan ezartzen denez, Euskadiko botere publikoek beharrezko neurri guztiak hartu beharko dituzte gizabanakoaren eta taldearen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta errealak izateko baldintzak sustatzeko eta oztopoak ezabatzeke.

📖 **Eusko Legebiltzarrak, Emakumearen Euskal Institutua edo Emakunde** sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legea onetsita, esan zuen lehentasunezkoa zela emakumeen diskriminazio forma guztiak benetan ezabatzea eta beharrezko neurri guztiak hartzea, emakumeek Erkidegoaren arlo guztietan duten partaidetza sustatzeko. Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren menpeko erakunde horren helburu nagusia, izan ere, *emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzea, Euskadiko bizitza politikoaren, ekonomikoaren, kulturalaren eta sozialaren barruko arlo guztietan.*

📖 **Eusko Jaurlaritzak** ekintza positiboko hiru plan onetsi ditu EAEko emakumeentzat, 2/1988 Legea garatuz, eta bertan, Euskadiko herri administrazioen esku-hartzearen oinarritzko lerroak jasotzen dira,

emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko, bizitzako arlo guztietan.

📄 **Eusko Jurlaritzak**, gainera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea onetsi zuen, berdintasuneko gizartea lortzeko bidean aurrerapausoak emateko<sup>1</sup>.

📄 **Bizkaiko Foru Aldundiak**, 2000ko martxoan, Aukera Berdintasunaren eta Generoko Politiken Unitatea sortu zuen; unitate horretan oinarrituz, apirilaren 27ko 89/2004 Foru Dekretua argitaratu zenean, **Ahaldun Nagusiaren Bulegoko Idazkaritza Tekniko Orokorreko Generoko Politiken Arloa** sortu zen; horrenbestez, Lehendakaritzaren barruko saila izatetik Ahaldun Nagusiaren Bulegoaren menpeko organismoa izatera igaro zen. Generoko Politiken Arloaren helburua Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen berdintasun politikak sustatzea, programatzea, aholkatzea eta ebaluatzea da.

Generoko Politiken Arloak honako **funtzio** hauek ditu esleituta:

1. Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren arloko **planifikazioa**, programazioaren diseinua eta betearazpena egitea, Bizkaiko Lurralde Historikoan.
2. Foru Aldundiaren jardueran **zeharkakotasuna** sustatzea.
3. Foru legeriaren jarraipena eta aplikazioa gauzatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioan oinarrituz.

---


<sup>1</sup> Iturria: 42. EHAA/2005.03.02

4. Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko programak eta jarduerak **laguntzeko, bultzatzeko eta sustatzeko** neurriak ezartzea.
5. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumena duten erakunde, organo eta unitateekiko **solaskidea** izatea, udalerrietan, Lurralde Historikoan, Autonomia Erkidegoan, Estatuan eta Estatutik haragoko mailan.
6. Foru Aldundiak harturiko neurrien eta jardueren **emaitzak ebaluatzea**, desberdintasunak zuzentzeko ezarritako neurrien eragina ezagutzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko.

Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak Aukera Berdintasunerako bi Foru Plan onetsi ditu:

 **Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako eta Generoko Politiketarako Foru Plana (2000-2003).**

 **Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako eta Generoko Politiketarako Foru Plana (2000-2007),** bestearen jarraipentzat.

 **Toki Administrazioa,** izan ere, berdintasun politikak aplikatzeko azken maila da, herri botereen eskalaren barruan. Horrela, udalek

berariazko eskumena dute, Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen Legeko 28. artikuluan ezarritakoaren arabera (apirilaren 2ko 7/1985 Legea): “Udalerriek beste Herri Administrazio batzuen jarduera osagarriak egin ditzakete; hain zuzen ere, hezkuntzari, kulturari, emakumearen sustapenari, etxebizitzari, osasunari eta ingurumena babesteari lotutakoak”.

Bestalde, udalak hiritarrendik hurbil daudenez, horiek aukera berdintasunaren arloan garatzen dituzten ekintzek eragin zuzena dute emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren lorpenean.

Estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan, aukera berdintasuna lan-eremua da, bai plan berezietan eta bai ekintza positiboetan, eta horretarako batzordeak sortu dira; hala eta guztiz ere, udalerrri mailan ez dira sakon ezagutzen egitura horien kuantifikazioa, horien ezarkuntza nahiz garapen maila eta horiek hiritarrendana iristen diren jarduera edo programa zehatzetan duten gauzapena. Ikerketa honen helburu nagusia, beraz, horixe da.

Horrela, ikerketa egiteko, prozesu osoan jaso diren helburu batzuk ezarri dira; helburu nagusia ikerketaren gaia da, eta bertatik zenbait helburu berezi sortzen dira.

## ┌ Helburu nagusia

*“Emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasuneko Politikek Bizkaiko udaletan duten egoera eta ezarkuntza maila ezagutzea”.*

### ∫ Helburu bereziak

- Bizkaiko udaletan Aukera Berdintasuneko Politiketarako sortu diren administrazio egiturak kuantifikatzea eta aztertzea.
- Horien finkapen edota bilakaera maila aztertzea.
- Aukera Berdintasuneko Planek Bizkaiko udaletan duten inplementazioa aztertzea, zenbait aldagai eta dimentsioren araberako azterketa kausala ezarriz.
- Aukera Berdintasuneko Politikek Bizkaiko udaletan duten zeharkakotasuna<sup>2</sup> ebaluatzea.
- Bizkaiko udaletan Aukera Berdintasuneko Politikak egotea baldintzatzen duten aldagaiak identifikatzea.

## 2. APLIKATURIKO METODOLOGIA

Kapitulu honetan azaldutakoaren arabera, Aukera Berdintasuneko Politikek Bizkaiko udaletan duten egoera ikertzeko prozesuan zenbait metodologia konbinatu dira, eta horrek, zalantza barik, aberastu egin ditu prozesu osoa eta ikerketaren emaitzak.

Ikerketaren garapenerako emandako lehenengo pausoa, izan ere, Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasuneko Politiken oraingo errealitatea hurbiltzeko agiriak biltzea izan da.

Ikerketaren helburua testuinguruan kokatu ondoren, Gizarte Ikerketako teknika aplikagarrien bideragarritasuna aztertu da, ikerketaren helburuaren errealitatea ezagutzeko (emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasuneko Politikek Bizkaiko udaletan duten egoera eta ezarkuntza maila). Izatez ere, horretarako teknikarik egokiena **erdi-egituraturiko** galdeketa da, metodologia kuantitatiboaren arabera, Gizarte Ikerketako Tekniken eremuan.

Bestalde, ikerketaren lehenengo fasean lorturiko emaitzen eraginezko jarduketa proposamenak kontrastatzeko, **Aukera Berdintasuneko Politiken Adituen Mahaia** eratu zen.

---

<sup>2</sup> Zeharkakotasuna, izan ere, generoko ikuspegiak erakunde publikoek garaturiko



Horrela, ikerketa ondo bereizitako hiru fasetan garatu da:

## **2.1. DOKUMENTU-AZTERKETA**

Ikerketaren lehenengo fasea dokumentazioa da; izan ere, fase horrek ikerketaren helburuaren testuingurura hurbilduko gaitu, hau da, Emakumeen eta Gizonen Aukera berdintasuneko Politiketara hurbilduko gaitu.

Horrela, bigarren mailako informazioa bilatuta eta aukeratuta, ikerketa, artikulak, arauak, legeak eta estatistikak lortu ziren, eta horiek, berriz, ikerketaren helburuaren errealitatearen testuingurua jakiteko erabili ziren; gainera, dokumentazio hori ikerketa osoaren abiapuntua izan zen.

## **2.2. METODOLOGIA KUANTITATIBOA: INKESTAK**

Erdi egituraturiko galdeketa erabiltzearen helburua, izatez ere, ikerketaren barruan sartzen den biztanleriari buruzko informazio sistematikoa eta ordenatua lortzea da, ikerketan kontuan hartu diren aldagaiei buruzko informazioa.

Tresna zehaztu ondoren, ikerketan aintzat harturiko biztanleriari buruzko informazioa biltzeko modurik onena presentzia-metodologia da, galdeketari erantzuna ematen zaiola bermatzeko; horrela, baztertu egin dira teknika horretan sarritan erabiltzen diren metodo batzuk, adibidez, telefonoa, gutuna edo posta elektronikoa.

Horrela, bi helburu lortu nahi dira:

📁 Erantzun-indize ahalik eta handiena lortzea

Dokumentu-berrikuspeneko fasean lorturiko dokumentuetariko bat "Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuneko Politikak" deritzonari buruzko ikerketa da, 2001ean egindakoa; bertan, %49,5eko erantzun-indizea lortu zen eta bi itzuli egin behar izan ziren (bata postaz eta bestea telefonoz), galdeketak jasotzeko.

Datu hori aintzat hartuta, bigarren fase honetan azaldutako metodologia proposatu zen.

📁 Bestela lortu ezin izango ziren xehetasun eta iritzi pertsonalak lortzea

Hala eta guztiz ere, kasu batzuetan ezin izan da teknika hori garatu, udal batzuek egindako eskabideen edo aurrez aurreko hitzorduak ezarri ezin izatearen eraginez, eta hori guztia aurrerago azalduko dugu.

Gero, ikerketan sartzen ziren unitateekiko kontaktuari ekin zitzaion; unitate horiek, izan ere, biztanleria osatzen duten guztiak dira (Bizkaiko udal guztiak: K=112), eta beraz, ez da laginketa-teknikarik erabili. Horrela, bete egin zen informazioa zuzenean lortzeko bigarren fasea.

Ikerketaren barruko biztanleria-unitateekin harremanetan jartzeko, zenbait fase garatu ziren:

1. Bizkaiko udal guztietara telefonoz deitu genuen, Aukera Berdintasunaren, Generoaren, Emakumearen eta abarren arloko arduradunaren izena jakiteko. Irudi, sail edo dena delako hori ez duten udaletan, gutuna alkate jaunaren edo andrearen izenean bidali da.
2. Informazio-gutuna bidali genion arloko arduradunari edo, bestela, udalerriko alkateari.
3. Aukera Berdintasunaren, Generoko Politiken, Emakumearen eta abarren arloaren ardura duen pertsonarekin telefonoz hitz egin genuen, inkesta egiteko hitzordua ezartzeko.

Azkenik, elkarrizketaturiko pertsona kopuruaren arabera egindako inkesta kopurua taula honetan adierazita dago:

**1. taula**

<b>Erregistro kopurua</b>	Unibertso osoa: K = 112 udalerri <sup>3</sup>
<b>Egindako inkesta kopurua</b>	100
<b>Profilak</b>	/ Aukera Berdintasuneko eragileak / Bizkaiko udalerrietan emakumeen eta gizonen Aukera Berdintasunari loturiko administrazio egituretan dauden teknikariak, arduradun politikoak edo ordezkariak / Alkateak, udaletako gorengo arduradun politikoak baitira

Bestalde, eskualde bakoitzean egindako inkesten eta egin zitezkeen guztien (udalerrien %100ek parte hartuz gero) arteko erlazioa ezarri da, Bizkaiko Foru Aldundiak ezarritako eskualde-banaketa aintzat hartuta<sup>4</sup>. Horrela, hurrengo taulan eskualdeen banaketa hori agertzen da, aintzat hartuta udalerrien ehunekoa, bakoitzean egindako inkesta guztiak eta horiek eskualdeko udalerri guztiei dagokienez duten ehunekoa.

**2. taula.**

<sup>3</sup> [www.udal.net](http://www.udal.net) orritik lorturiko datuak

<sup>4</sup> Iturria: <http://web.bizkaia.net>

### ESKUALDE BAKOITZEAN EGINDAKO INKESTEN EHUNEKOA

	Udalerrien %, guztizkoari dagokionez	Egindako inkesta kopurua	Egindako inkesten %, eskualdeko udalerri guztiei dagokienez
<b>ARRATIA NERBIOI</b>	%12.50	12	<b>%85.71</b>
<b>BUSTURIALDEA</b>	%17.80	15	<b>%75</b>
<b>DURANGOALDEA</b>	%13.39	13	<b>%86.67</b>
<b>ENKARTERRI</b>	%8.94	10	<b>%100</b>
<b>BILBO HANDIA</b>	%23.21	24	<b>%92.31</b>
<b>LEA – ARTIBAI</b>	%10.71	11	<b>%91.67</b>
<b>URIBE – KOSTA</b>	%13.39	15	<b>%100</b>
	<b>%100 = 112</b>	<b>100</b>	

Taulan ikusten denez, Enkarterrin eta Uribe-Kostan baino ez da iritsi udalerrien %100era. Gainerakoen kasuan ezin izan da inkesta egin.

Galdeketa bakoitzaren amaieran, kasu guztietan, bitarte bat utzi da Aukera Berdintasuneko Politikei buruzko iritzi eta iruzkin pertsonalak egiteko, bai maila orokorrean eta bai udalerri bakoitzean garatzen den lanean. Iritzi eta iruzkin horiek txosten honetan azalduko dira, garrantzitsuak direlako eta horietarikoren bat behin eta berriro errepikatzen delako.

Azkenik, udalerrietan inkestetarako egin diren bilerek 30 minutuko batez besteko iraupena izan dute. Bilera horietan, elkarrizketaturiko pertsonen iritzien konfidentziasuna bermatu da. Horrela,

elkarrizketaturiko ezein udaletako ordezkari ez zaio iritzi pertsonalik eratzikiko.

### **2.3. ADITUEN BALIOZTATZE MAHAIA**

Inkesten estatistika-azterketaren ondorioz azaldutako jarduketa-proposamenak balioztatzeke, Aukera Berdintasuneko eta Generoko Politiketako Adituen Mahaia antolatu zen. Adituak, izatez ere, euren lanbidearen ondorioz ikertzen ari garen arazoari buruzko ezagupen handiak dituzten pertsonak dira<sup>5</sup>.

Proposamenak balioztatzeke, metodologia kuantitatiboa landu zen; hain zuzen ere, arloka egituraturiko dokumentua sortu zen eta arloen barruan jarduketa-proposamenak azaltzen ziren, arlo bakoitzean lortu nahi ziren helburuak ere adierazita.

Horrela, 5 arlo eta 20 proposamen ezarri ziren; Generoko Politiketako adituek horiek balioztatu behar izan zituzten, 1etik 10erako eskala erabiliz; eskala horrek proposamenekiko adostasun edo desadostasun maila adierazten zuen (adostasunik txikiena 1 eta adostasunik handiena 10).

Balioztatze mahaia egiteko materiala prestatu ondoren, Aukera Berdintasuneko adituak kontratatu eta mahaia antolatu zen.



Berdintasuneko adituekin harremanetan jartzeko irizpideak bi izan ziren:

- Lanbide profila edo lanbide hori garatzeko erakundeetan duten kargua. Horrela, mahaian parte hartu duten pertsona guztiek Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasuneko Politiketari garatzen dute euren lanbide-jardueraren %100a.
- Ikerketaren lehenengo faserako inkestak egiteko elkarrizketa pertsonaletan adituekin sortu den feedbacka.

Puntu honetara helduta, aipagarria da ikerketan lortu den erantzun-indize handia; izan ere, unibertsitaterako udalerriri guztien %89.28k erantzuna eman du.

Horrenbestez, bete egin da 2.2. atalean adierazitako lehenengo helburua, hau da, "Erantzun-indize ahalik eta handiena lortzea".

### 3. **GAI-BLOKEAK**

#### 3.1. **BIZKAIKO UDALEN TIPOLOGIA**


---

<sup>5</sup> Ikerketa kualitatiboaren metodologia. José Ignacio Ruiz Olabuénaga. Deustuko Unibertsitatea. 1999.

Bizkaiko Lurralde Historikoa, Foru Aldundiak egindako banaketaren arabera, 7 eskualdek osatzen dute eta horiek 112 udalerrri biltzen dituzte.

Udalerrri kopuruaren arabera, Bizkaiko eskualdeak honako hauek dira:

**1. grafikoa.**



Bizkaian 1.132.861 pertsona bizi dira<sup>6</sup>; horietatik %48.62 (550.836) gizonak dira eta %51.38 (582.025) emakumeak.

Udalerrriak biztanle kopuruaren arabera bilduta, honako taula hau lortzen da:

**3. taula.**

**UDALERRIAK BIZTANLE KOPURUAREN ARABERA BILDUTA**

<sup>6</sup> *Iturria:* Estatistikako Nazio Erakundea. 2004/01/01ko zifrak. Abenduaren 23ko 2348/2004 Errege Dekretua.

	Udalerri kop.	Gutzizkoaren %
20.000 biztanle baino gehiago	11	%9.82
10.000-20.000 biztanle bitartean	8	%7.14
5.000-10.000 biztanle bitartean	12	%10.72
1.000-5.000 biztanle bitartean	40	%35.71
1.000 biztanle baino gutxiago	41	%36.61
	<b>K = 112</b>	<b>%100.00</b>

Taulan ikusten denez, Bizkaiko udalerrien %72.32k 5.000 biztanle baino gutxiago dauka, eta %9.82k baino ez dauka 20.000 biztanle baino gehiago (11 udalerri).

Bizkaiko mapa politikora udalerri bakoitzean gobernatzen duen alkatearen alderdi politikoaren arabera hurbilduz gero lortzen den banaketan, presentziarik handiena EAJ-PNV alderdiak dauka, bai bera bakarrik edo bai beste alderi batzuekin koalizioan<sup>7</sup>.

#### 4. taula.

<b>BIZKAIKO ALKATETZEN BANAKETA ALDERDI POLITIKOAREN ARABERA</b>		
Alderdi Politikoa	Alkatetza kopurua	Gutzizkoaren %
<b>PNV</b>	89	<b>%79.46</b>
<b>PNV – EA</b>	7	%6.25
<b>EA</b>	3	%2.70


<sup>7</sup> Iturria: [www.udal.net](http://www.udal.net)

<b>PSOE</b>	<b>5</b>	<b>%4.45</b>
<b>Beste batzuk</b>	<b>8</b>	<b>%7.14</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>112</b>	<b>%100</b>

Lehen esan dugunez, alkatetzen %79.46 Euzko Alderdi Jeltzaleko alkateen esku daude. Aldiz, alkatetzarik gutxien duen alderdi politikoa (inorekin koalizioan egon barik eraturiko alkatetzei dagokienez) Eusko Alkartasuna da.

Udalik gehienak modu berean egituratzen dira:

BIZKAIKO UDALEN ORGANIGRAMA



Hala eta guztiz ere, udal batzuetatik besteetarako desberdintasunak daude, udalerrri bakoitzeko biztanle kopuruaren arabera, Zinegotzigoen menpeko arloei dagokienez, eta horrela, biztanle gutxiko udaletan arlo bakoitzaren ordezkari politikoak dago, baina ez dago teknika-eririk.

Halako kasuetan, eskumenak mankomunitatearen esku gelditzen dira. Bizkaian 19 mankomunitate daude <sup>8</sup>; bakoitzak, berriz, emandako zerbitzuen gaineko arloaren arabera hartzen du izena.

Laburtzeko, atal honen ondorioak honako hauek dira:

□ Bizkaiko Lurralde Historikoa eskualdeka banatuta dago, eta udalerririk gehien duen eskualdea Bilbo Handia da (%23.21).

□ Udalerrien artean, 5.000 biztanletik beherakoak dira ugariak; hain zuzen ere, guztizkoaren %72.32.

□ Udal guztien %85.71 PNVk gobernatzen ditu, berak bakarrik edo EArekin koalizioan.

□ Alkatetzetan Gobernu Batzorde bat eta zenbait Zinegotzigo daude. Gainera, udal bakoitzak idazkaria eta kontu-hartzailea dauka. Udal guztiek ez dute langile teknikorik, eta, kasu batzuetan, mankomunitaterako deribazioa dago.

### **3.2. IKERKETAN PARTE HARTU DUTEN UDALEN TIPOLOGIA**

Azterketaren ostean lortu diren estatistika-emaizak azaltzen hasi baino lehen, komenigarria da emaitza horiek testuinguruan kokatzea, hain zuzen ere, inkestari erantzun dioten 100 udalerrien testuinguruan, aldagai interesgarri batzuk ere aintzat hartuta.


---

<sup>8</sup> Iturria: [www.udal.net](http://www.udal.net)

Aukera Berdintasuneko Politikek Bizkaiko udalerrietan duten ezarkuntza mailari buruzko ikerketan parte hartu duten 100 udalerririk Bizkaiko Foru Aldundiak ezarritako 7 eskualdeen barruan daude; Enkarterriko eta Uribe Kostako udalerrien %100ek hartu du parte, eta partaidetzarik txikiena, berriz, Busturialdeko udalerrietan egon da (udalerrien %75).

Inkestari erantzuna eman dioten udalerriek **biztanle kopuruaren arabera duten banaketari** dagokionez, horietako %69k 5.000 biztanle baino gutxiago dute, eta 10.000 biztanletik gorakoak udalerrien %19 baino ez dira.

2. grafikoa.




Datuek agerian jartzen dutenez, 5.000 biztanletik gorako udalerririk guztiek hartu dute parte ikerketan.



Bestalde, aurrekontu ekonomikoari dagokionez, ikerketan parte hartu duten udalerrien %54k ez ditu 3.005.060 € gainditzen, eta %14k baino ez dauka 18.030.363 €-tik gorako urteko aurrekontua<sup>9</sup>.


### 3. grafikoa.



Azkenik, inkestan parte hartu duten udalerrri guztiei dagokienez, %74an PNVk gobernatzen du.

### 4. grafikoa.

<sup>9</sup> Udal aurrekontuetarako proposaturiko eskala egin baino lehen, Bizkaiko udalen aurrekontu orokorrak aztertu dira (EUSTAT).



Inkestan parte hartu duten 100 udalerrien tipologia, azken batean, udalerrien funtzionamendurako funtsezkoak diren hiru aldagaitan oinarritzen da:

#### **IKERKETAN PARTE HARTU DUTEN UDALERRIEN TIPOLOGIA**

**Biztanle kopurua:** 5.000 biztanletik gorako Bizkaiko udalerrri guztiek hartu dute parte ikerketan, baita biztanle kopuru horretatik beherako udalerrri guztien %85.18k ere.

**Urteko aurrekontu ekonomikoa:** 3.005.060 €-ko hesiak banaturiko udalerrriak dira; izan ere, %54 ez dira zenbateko horretara iristen eta gainerako %46k gaintitu egiten dute.

**Udal gobernuan dagoen alderdi politikoa:** Bizkaiko mapa politiko orokorrak adierazten duenez (inkestan parte hartu duten udalerrrien mapa), gehiengoa PNVk dauka; izan ere, ikerketan parte hartu duten alkatetzen %74an alderdi horrek gobernatzen du.

Azkenik, udalerriek inkestan izandako partaidetzari dagokionez, 12 udalerrik ez dute parte hartu eta horiek guztiek 5.000 biztanletik beherako biztanleria dute; udalerriotara posta elektronikoz bidali zen inkesta, ezinezkoa baitzen aurrez aurreko hitzordua edukitzea, baina ez dute erantzunik eman.

Halaber, bost udalerrik faxez hartu dute parte inkestan, eta kasuan kasuko udalaren zigiluak egiaztatu egiten du hori; udal horiek posta elektronikoaren bidez eman diote erantzuna inkestari, enpresarekin zerikusirik ez duten zergatien ondorioz.


### **3.3. AUKERA BERDINTASUNAREN ARLOKO EGITUREN AZTERKETA**

Emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasuneko Politiketarako lehenengo hurbilketa egiteko, aintzat hartu dira Bizkaiko Lurralde Historikoan arlo horretan dauden bulego nagusiak: *Ahaldun Nagusiaren Bulegoko Idazkaritza Tekniko Nagusiko Generoko Politiken Arloa eta emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasunerako eta Generoko Politiketarako Foru Plana.*

 **Generoko Politiken Arloa**

**Generoko Politiken Arloari** dagokionez, esan behar da elkarrizketaturiko pertsona guztien %10.46k ez dakiela arlo hori dagoenik; gainerako %89.54k arlo horren berri dauka.

5. grafikoa.



Inkestari erantzun dioten pertsonak Arloari buruz duten ezagupenerako aldagaiak aztertzean, bazirudien eragina zuen aldagaietariko bat *elkarrizketatuak Udaletxean zuen lanpostua* zela. Hala eta guztiz ere, bidezko estatistika-azterketa egin ondoren ondorioztatzen denez, %95eko konfiantzarekin, elkarrizketaturiko pertsonak Udaletxean duen karguak ez dauka zerikusirik pertsona horrek Generoko Politiken Arloa ezagutzearekin edo ez ezagutzearekin.

Elkarrizketaturiko pertsonaren kasuan ez bezala, Aldundiko Generoko Politiken Arloaren ezagupenean eragin zuzena duten aldagaiak daude.

▪ *Emakumearen bizi-baldintzak sustatzen dituen administrazio-egitura* egotea, hau da, Emakumearen edo Berdintasunaren Arloa egotea. Egindako estatistika-azterketaren arabera, Generoko Politiken Arloa ezagutzea, neurri handian, Udalean Emakumearen edo Aukera Berdintasunaren Arloa egotearen araberakoa da. Horrela, Generoko Politiken Arloa ezagutzen ez dutela esan duten %10.46etik gehienak (%91.7) halako egiturarik gabeko udal batean ari dira lanean.

▪ Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako eta Generoko Politiketarako Plana onestea; izan ere, Generoko Politiken Arloa ezagutzen ez dutela esan duten %10.46, gainera, Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Plana onetsi gabe duen udalen batean ari dira lanean.


▪ *Udalerriko biztanle kopurua*: egindako estatistika-azterketak adierazitakoaren arabera, Generoko Politiken Arloa ezagutzen ez dutela esan duten %10.46etatik gehienak (%91.7) 5.000 biztanletik beherako udalerrietakoak dira. Horrek aditzera eman du aldagai horrek eragin handia duela Bizkaiko Foru Aldundiko Generoko Politiken Arloaren ezagupenean.

 **Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako eta Generoko Politiketarako Foru Plana**

**Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako eta Generoko Politiketarako Foru Planari dagokionez,**

elkarrizketaturiko pertsonen artean hori ezagutzen ez dutela diotenen ehunekoa %21.53koa da.

6. grafikoa.



Aurreko kasuan bezala, elkarrizketaturiko pertsonen artean Foru Plana ezagutzen dutenen ehunekoa zenbait aldagaien arabera da:

- *Udalean Emakumearen bizi-baldintzak sustatzen dituen administrazio-egitura* egotea. Kasu honetan, Foru Plana ezagutzen ez omen duten elkarrizketaturiko pertsonen %21.53tik guztiek egiten dute lan Emakumearen edo Berdintasunaren Arlorik ez duen udalen batean.

- *Aukera Berdintasunerako Udal Plana* onestea. Horrela, Foru Plana ezagutzen ez duten elkarrizketaturiko pertsonen %21.53tik guztiak ari dira Udal Plana onetsi barik duten udaletan.

- *Udalerriko biztanle kopurua*: Generoko Politiken Arloaren ezagupenaren kasuan gertatzen den bezala, udalerriko biztanle



kopuruak eragina dauka Aukera Berdintasunerako Foru Planaren ezagupenean ere. Horrela, Foru Plana ezagutzen ez dutela erantzun duten %21.53tik gehienak (%90) 10.000 biztanletik beherako udalerrietakoak dira.

Azkenik, *elkarrizketaturiko pertsonaren karguak* Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako eta Generoko Politiketarako Foru Planaren ezagupenean duen eragina aztertu da. Generoko Politiken Arloaren kasuan bezala, esan daiteke (%95eko konfiantzarekin) kargua ez dela Foru Plana ezagutzearen araberakoa.

Elkarrizketaturiko pertsonak bai Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Generoko Politiketarako Foru Plana eta bai Emakumearen aldeko lana egiten duen Foru Erakundea ezagutzeko aldagaiak, azken batean, honako hauek dira:

- Udalean *Emakumearen edo Berdintasunaren Arloa* egotea.
- Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako *Udal Plana* egotea.
- Udalerriko biztanle kopurua.

Hala eta guztiz ere, hasieran pentsa zitekeenaren aurka, inkestari erantzun dion pertsonaren karguak ez dauka eraginik kapitulu honetan aztertu diren alderdietan.

### **3.4 AUKERA BERDINTASUNAREN ARLOAN UDALETAN DAUDEN ADMINISTRAZIO EGITURAK**


#### **3.4.1. Kuantifikazioa eta azalpena**

Ondoren ikusiko dugunez, Bizkaiko udalerrri guztietan ez dago emakumeen bizi-baldintzak sustatzen dituen **administrazio egiturarik**, hau da, Emakumearen Arlorik edo Aukera Berdintasunerako Arlorik, udalerriko emakumeen eta gizonen arteko benetako Berdintasuna lortu ahal izateko.

Hain zuzen ere, egitura hori udalen %35ek dute, eta gainerako %65ek oraindik ez du sortu halako egiturarik.

**7. grafikoa.**

**Emakumearen Berdintasunaren alde lan egiten duten egiturak**



Emakumearen alde sortu den egiturak ez du izen bera hartu udal guztietan, eta izenik ohikoenak ondoren adierazten direnak dira:

- » Berdintasunaren Arloa »
  - » Emakumearen eta Berdintasunaren Arloa »
  - » Emakumearen eta Toki Garapenaren Arloa »
  - » Gizartekintzaren eta Emakumearen Berdintasunaren Arloa »
    - » Emakumearen Azpibatzordea »
    - » Emakumearen Udal Zerbitzua »
    - » Berdintasunaren Udal Zerbitzua »
  - » Gizarte Ongizatea, Gizarte Segurantzza eta Emakumearen Arloa »
    - » Emakumearen Aholkularitza Zentroa »
  - » Drogamenpekotasunen Prebentzioaren, Emakumearen eta Elkartasunaren Arloa »
    - » Emakumearen, Familiaren eta Haurtzaroaren Arloa »


» Emakumearen eta Adin Txikikoen Arloa »

» Emakumearen eta Garapenerako Laguntzaren Arloa »

Datu hori ezagutu ondoren, egitura horiek oso garrantzitsuak dira, kasuan kasuko udaleko beste sail edo arlo batzuekiko mendekotasuna izateari edo ez izateari dagokionez; izan ere, udal guztietan egitura horiek ez dira autonomoak, ez dute aurrekontu berezirik, langile espezializaturik, etab.; hain zuzen ere, beste arlo batzuetan sartuta daude, bertako langileek lan desberdinak egiten dituzte eta aurrekontua arlo desberdinetan banatu behar da.

Horrela, Bizkaiko udaletan emakumeen bizi-baldintzak hobetzeko dauden egitura guztien artean, %42.9 independenteak dira, eta gainerakoak, hau da, %57.1, kasuan kasuko udaleko beste sail batzuen barruan sartuta daude eta horien menpekoak dira.


**8. grafikoa.**



Datuek agerian jartzen dutenez, Bizkaiko udaletan Emakumearen alde lan egiten duten arloen %80 Gizarte Ongizatearen barruan daude. Ehuneko hori askoz ere txikiagoa da Kultura Arloan (%15), eta oraindik ere txikiagoa Gobernu Batzordean (%5).

Hona hemen goian azaldutakoari buruzko grafikoak.

**9. grafikoa.**



Datu horiek agerian jartzen dutenez, udal askok bigarren mailan uzten dituzte Emakumearen inguruko gaiak. Udal horietan Emakumeari ez zaio arretarik jartzen, gizarte zerbitzuren batetik ez bada; halako zerbitzuetan laguntza eskaintzen zaie tratu txarrak jasan dituzten emakumeei, baita adin txikiko haurrei, bazterkeria arriskuan dauden pertsoneri, gizarte bazterkerian dauden pertsoneri, etab. Izan ere, "Emakumea", "Haurtzarora" eta "Gizarte Ongizate edo Gizartekintza" kontzeptuak elkarrekin agertzen dira arlo horietariko batzuen nomenklaturan.

Hala eta guztiz ere, Aukera Berdintasunerako Arlo horien helburua ez da arazoak dituzten emakumei zerbitzuak eskaintzea, gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna sustatzea baizik, generoaren, arrazaren edo gizarte mailaren araberako desberdintasunak baztertuz. Horrenbestez, helburua emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunen prebentzioa nahiz ezabaketa egitea eta hiritar guztiei berdintasunezko tratua ematea da.



Emakumearen alde lan egiten duten arloen %82.35 Gizarte Ongizatearen barruan daude eta hori, neurri handian, inkestari erantzun dioten pertsonen **lanpostuari** lotuta dago.

Inkestari erantzun dioten pertsona guztien artean, talderik handiena kasuan kasuko udalerrietako **Gizarte Ongizate** edo Gizartekintza arloen barruan daude; kasurik gehienetan, Zuzendaritzako karguak dituzte edo gizarte langileak dira. Pertsona horiek elkarrizketaturiko pertsona guztien **%28ra** iristen dira.

Profilen arabera, bigarren talderik ugariena **Emakumearen edota Berdintasunaren Arloan** lan egiten duten pertsonak osaturikoa da. Elkarrizketaturiko pertsona guztien **%25era** iristen dira, eta, euren karguari dagokionez, teknikariak, Emakumearen Arloko zinegotziak eta Emakumearen Arloko zuzendariordea dira.

Hirugarren talde nagusia, inkestari erantzuna eman diotenei dagokienez, **alkateek** osaturikoa da; hain zuzen ere, elkarrizketaturiko pertsona guztien %14.

Laugarren postuan, Alkatetzako **idazkariak** (%13) eta **Kulturaren Arloan** lan egiten dutenak (%13) dira.

Bosgarren postuan, bestalde, udaletako **administratzaileak** daude (%4).

Azkenik, inkestari **Toki Garapeneko eragileek** ere erantzun diote, eta horien ehunekoak guztizkoaren %3koa da.

### **3.4.2. Funtzioak**

Emakumearen Arloa, Berdintasunaren Arloa edo antzeko izenekin ezarritako administrazio-egituraren helburua emakumeen eta gizonen arteko benetako aukera berdintasuna lortzea da, bizitzaren barruko arlo guztietan, baita hiritarrak jabeaztea ere, hori horrela izateko.

Sentsibilizazio lan horretarako, Aukera Berdintasunean lan egiten duten 34 udal bulegoek zenbait eginkizun dituzte. Ondoren adierazitakoak dira:

⊗ Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasuna sustatzea eta bultzatzea

⊗ Berdintasuneko Politikak sustatzea eta garatzea

⊗ Aukera Berdintasunerako Udal Plana garatzea

⊗ Udaletako langileengan eta hiritarren Generoko Berdintasunari buruzko informazioa, heziketa eta sentsibilizazioa hedatzea

⊗ Udalarekin eta udalerriko elkarteekin Berdintasunaren aldeko jarduera komunitarioak sustatzea

⊗ Hizkuntzaren arloko sentsibilizazioa: sexista ez den hizkuntzaren erabilerarekiko sentsibilizazioa

⊗ Emakumearen sarrera sustatzea, lan-merkatuan

⊗ Emakumeen arteko elkartegintza sustatzea

⊗ Tratu txarrak jasan dituzten emakumeei aholkularitza juridikoa nahiz psikologikoa eta laguntza ematea

Ikusten denez, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna sustatzen duten arloen funtzioek hiritarren eta udaletako langileen inplikazioa behar dute, alderdi bi horiek ezinbestekoak baitira Berdintasuna lortzeko.

### **3.4.3. Ezarkuntza maila**

Bizkaiko Lurralde Historikoko udalen barruan emakumeen bizibaldintzak hobetzeko lan egiten duten egituren errealitatera hurbiltzen gaituzten aldagaietariko bat horien **sorrera urtea** da. Datu hori oso garrantzitsua da, hurbildu egiten baikaitu egitura horien ezarkuntza eta finkapen mailara.

Emakumearen bizi-baldintzen alde lan egiten duen Eremua duten 35 udalerriekin, bi talde egin dira, euren sorrera dataren arabera eta erreferentziatzat 2000. urtea hartuta. Urte hori erreferentziatzat hartu da lehenengo Foru Plana orduantxe onetsi zelako: Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako eta Generoko Politiketarako Foru Plana (2000-2003).

5. taula.


<b>EMAKUMEAREN ARLOA EZARTZEKO DATA</b>	
<b>2000. urtea baino lehen</b>	<b>2000. urtearen ostean</b>
Balmaseda	Larrabetzu
Ondarroa	Abanto eta Zierbena
Lekeitio	Areatza
Erandio	Mungia
Portugalete	Igorre
Ermua	Maruri - Jatabe
Zaldibar	Gernika
Muskiz	Ugao - Miraballes
Berriz	Basauri
Bilbo	Galdakao
Zalla	Abadiño
Zierbena	Elorrio
Karrantza	Getxo
Gordexola	Leioa
Trapagaran	Santurtzi
Lemoiz	Barakaldo
	Durango
	Güeñes
	Urtuella

2000. urtea baino lehen 16 udalerrik zeukaten Berdintasuneko Arloa; hala ere, urte horretatik aurrera, kopuru hori gero eta gehiago hazi da, eta gaur egun ere finkatzen jarraitu du.

2000. urtean eremuen ezarkuntzan desberdintasun handia egon zen, eta pentsa daiteke ezarkuntza horretan eraginik handiena izan zuen aldagaia Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako eta Generoko Politiketarako lehenengo Foru Planaren onespena izan zela.

Ondoren, hori grafiko batean ikusiko dugu.

10. grafikoa.



Datuek agerian jartzen dutenez, Foru Plana onetsi baino lehen, Bizkaiko udaletan Emakumearen bizi-baldintzen alde lan egiten duten administrazio-egituren ezarkuntza maila ez da ondorengo urteetako baino askoz ere handiagoa. Horrenbestez, esan daiteke ezarkuntza

apurka-apurkakoa dela eta aipaturiko aldagaiak ez duela eraginik horretan.

Ondoren, beste aldagai batzuen eragina ikusiko dugu.

#### **3.4.4. Ezarkuntzan eragina duten aldagaiak**

Emakumearen bizi-baldintzei mesede egiten dieten administrazio-egituren ezarkuntzan eta finkapen mailan, aldagai batzuek eragina izan dute. Ondoren adierazitako aldagaiak dira.

##### **© Udalerriko biztanle kopurua**

Estatistika-azterketa egin ondoren, esan daiteke (%95eko konfiantzarekin), Emakumearen bizi-baldintzei mesede egiten dien egitura baten sorrera udalerriko biztanle kopuruaren arabera dela. Hau da, udalerrian zenbat eta biztanle gehiago egon, halako egituren ezarkuntza hainbat eta handiagoa da.

Izan ere, 1990. urtea baino lehen sorturiko egitura guztiak, Lekeitiokoa izan ezik, 20.000 biztanletik gorako udalerrietakoak dira.

**6. taula.**



<b>EGITURA KOPURUA</b>				
<b>BIZTANLE KOPURUAREN ETA EZARKUNTZA DATAREN ARABERA</b>				
<b>Biztanle kopurua</b>	<b>80ko hamarkada</b>	<b>90eko hamarkada</b>	<b>2000. urtetik aurrera</b>	<b>GUZTIRA</b>
20.000 baino gehiago	3	0	7	%28.57
10.000-20.000 bitartean	0	1	2	%8.57
5.000-10.000 bitartean	1	5	5	%31.43
5.000 baino gutxiago	0	6	5	%31.43
<b>GUZTIRA</b>	<b>%11.44</b>	<b>%34.28</b>	<b>%54.28</b>	<b>%100</b>

Taulan ikusten denez, arloen ezarkuntza 2000. urtetik aurrera finkatu zen, eta arlo guztien %54.28 urte horretatik aurrera sortu ziren.

Datuetatik ondorioztatzen denez, udalerrri "handietan" errazagoa da halako egiturak sortzea; izan ere, Bizkaian dauden 20.000 biztanletik gorako 11 udalerrietatik 10etan Emakumearen inguruko egituraren bat dago. Aldiz, Bizkaian dauden 5.000 biztanletik beherako udalerrietako 10etan baino ez dago halako egiturarik.

© Udalaren aurrekontua

Bestalde, jakin nahi da ea "udal aurrekontuak" eraginik ote duen Emakumearen bizi-baldintzei mesede egiten dieten administrazio-egituren sorreran.

Datuek agerian jartzen dute lotura estua dagoela administrazio-egitura ezartzeko urtearen eta kasuan kasuko udaleko urteko aurrekontuaren artean.

Izan ere, 600.000 €-tik beherako aurrekontua duten udalek orain arte ez dute sortu Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunaren alde lan egiten duen egiturarik.

Hala eta guztiz ere, egitura horietako %68.56 urteko aurrekontuan 600.000 € baino gehiago duten udalerrietan finkaturik daude.

7. taula.

<b>EGITURA KOPURUA</b>				
<b>AURREKONTUAREN ETA EZARKUNTZA DATAREN ARABERA</b>				
<b>Aurrekontua</b>	<b>80ko hamarkada</b>	<b>90eko hamarkada</b>	<b>2000. urtetik aurrera</b>	<b>GUZTIRA</b>
18.000.000 € baino gehiago	3	2	7	%34.28
6.000.000-18.000.000 € bitartean	1	6	5	%34.28
3.000.000-6.000.000 € bitartean	0	1	3	%11.44
600.000-3.000.000 € bitartean	0	3	4	%20
600.000 € baino gutxiago	0	0	0	%0
<b>GUZTIRA</b>	<b>%11.44</b>	<b>%34.28</b>	<b>%54.28</b>	<b>%100</b>

Horrenbestez, kasuan kasuko udalaren aurrekontu ekonomikoa zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta handiagoa izango da Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunaren aldeko egituren ezarkuntza.

### © Udal gobernuan dagoen alderdi politikoa

Udalaren arloko erabaki asko baldintzatzen dituen faktore bat udal gobernuan dagoen alderdi politikoa izaten da.

Kasu honetan, pentsa daiteke, udalerrriaren gobernuan dagoen alderdi politikoaren arabera, Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasuna bultzatzeko eta Generoko Politikak sustatzeko ahalegin handiagoa edo txikiagoa egingo dela.

Hala eta guztiz ere, arreta berezia jarri behar zaio Bizkaiko mapa politikoari; bertan, lehen esan dugunez, udalerrri guztien %79.46 Euzko Alderdi Jeltzaleak gobernatzen ditu.

8. taula.

EMAKUMEAREN ALDEKO ADMINISTRAZIO-EGITURA, UDAL GOBERNUAN DAGOEN ALDERDI POLITIKOAREN ARABERA							
	PNV	EA	PNV-EA	PSOE	HIRUKOA	PP - PSOE	Beste batzuk
<b>Badago</b>	%27	%0	%75	%100	%100	%100	%14.3
<b>Ez dago</b>	%73	%100	%25	%0	%0	%0	%85.7

Horrela, alderdi politiko guztiek gobernaturiko udalerrietan Aukera Berdintasunaren alde lan egiten duten Eremuen ezarkuntza dago, Eusko Alkartasunak gobernatzen dituen udalerrietan izan ezik.

Euzko Alderdi Jeltzaleak berak bakarrik gobernatzen dituen alkatetzen kasuan ere, ezarkuntza gainerako kasuetan baino txikiagoa da; hala eta guztiz ere, alderdi horren eta Eusko Alkartasunaren arteko koalizioa duten udalerrietan, arlo horien sorrera-indizea %75ekoa da.

Horren arabera, gobernuan dauden talde politikoen ideia politikoek baldintzatu egiten dute, neurri handian, Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunaren aldeko apustua. Gainera, hori estuago lotuta egon daiteke alkatetzetan gobernatzen dutenen sentsibilizaziora eta justizia sozialera, ideia politikoetara baino.

Emakumearen alde lan egiten duten Arloen ezarkuntzaren eta finkapenaren gaiari amaiera emateko, esan behar da, datu anekdotiko historikotzat, oraingo egituretariko lau 80ko hamarkadan sortutakoak direla eta, beraz, gainerako guztiek baino finkapen maila handiagoa dutela: Erandio, Portugalete, Bilbo eta Lekeitio.

80ko hamarkadan ezarritako lau arlo horien ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

### 80ko HAMARKADAN SORTURIKO ARLOEN EZAUGARRIAK

	Sorrera urtea	Arloaren izena	Beste arlo batzuekiko mendekotasuna	Udalerriaren aurrekontua	Biztanle kopurua
<b>ERANDIO</b>	1985	Emak., Fam. eta Haurtzaroaren Arloa	Gizartekintzaren barruan	> 18.000.000 €	> 20.000
<b>PORTUGALETE</b>	1987	Emak. Aholk. Zentroa	Gizarte Zerbitzuen barruan	> 18.000.000 €	> 20.000
<b>BILBO</b>	1988	Emak. eta Garap. Lank. Arloa	Independentea	> 18.000.000 €	> 20.000
<b>LEKEITIO</b>	1989	Emak. Azpibatzerdea	Gizarte Ongizatearen barruan	6-18.000.000 €	5.000 – 10.000

Ikusten denez, sorrera urtearena kenduta, lau arlo horien sorreran ez dago beste ezaugarri komunik.

Hala eta guztiz ere, ikerketan parte hartu duten udalerrri guztien mailan, esan daiteke Aukera Berdintasunerako Arloa ezartzeko eta finkatzeko orduan eraginik handiena duen faktorea *udalerriko biztanle kopurua* dela; ondorio hori guztiz zentzuzkoa da, Bizkaiko udalerrri txikien ezaugarriak kontuan hartuta:

- Alkateek ez dute arduraldi osorik
- Zinegotziek ez dute arduraldi osorik
- Arlo edo sail independente gutxi sortzen dira

- Gizarte Ongizatea, Enplegua, Heziketa eta halako arloen ardura Mankomunitateari edo Udaleko sail autonomoei ematen zaie

### **3.5. AUKERA BERDINTASUNAREN PLANAK**

#### **3.5.1. Aukera Berdintasuneko Planetarako hurbilketa**

Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Politikek Bizkaiko udaletan duten egoera eta ezarkuntza maila aztertzean, garrantzi handikoa da Aukera Berdintasunerako Udal Planak aztertzea.

Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Plana, izan ere, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko tresna da, eta horretarako, ekintza positiboak erabiltzen dira.

*BERDINTASUNEKO UDAL PLANA*



*EKINTZA POSITIBOAK*



***GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO BENETAKO  
BERDINTASUNA***



Horrela, Plana iraupen jakineko jarduketan planifikazioa da; horren barruan, jarduketa eremu desberdinen helburuak betetzeari buruzko adierazleak sartzen dira.

Lehenengo hurbilketan ikusten denez, azterturiko udalerrri guztien %28k azken 5 urteotan **onetsita dute** Aukera Berdintasunerako **Plana**. Azken 5 urteotan Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Plana onetsi ez duten udalerrrien ehunekoa, berriz, %72koa da.

2000. urtearen ostean Planik onetsi ez duten udalerrrien %72 horri, udalerrrian etorkizunean Berdintasunerako Planik onesteko asmorik ote duen galdetu zaio, eta galdera horri honako erantzun hauek eman zaizkio:

10. taula.

<b>AUKERA BERDINTASUNERAKO UDAL PLANA ONESTEKO AURREIKUSITAKO EPEA</b>		
<b>Aurreikusita dago</b>	<b>Epe laburrean</b>	<b>%8.3</b>
	<b>Epe ertainean</b>	<b>%15.3</b>
	<b>Epe luzean</b>	<b>%12.5</b>
<b>Ez dago aurreikusita</b>		<b>%58.3</b>
<b>Ez daki / Ez du erantzun</b>		<b>%5.6</b>
<b>GUZTIRA</b>		<b>%100</b>

Emaitzen taulan ikusten denez, azken 5 urteotan Aukera Berdintasunerako Planik onetsi ez duten baina hori epe laburrean edo ertainean sortzeko asmoa duten udalerrien ehunekoa %23.6koa da.

Hala eta guztiz ere, ehuneko hori %58.3koa da, udalerrian Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Planik onestea aurreikusita ez duten udalerrien kasuan.

Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Plan baten onespena, izan ere, kasuan kasuko udalaren barne ezaugarrien berezko aldagaien araberakoa da.

### **3.5.2. Aukera Berdintasuneko Udal Planen inplementazioaren azterketa kausala**


Aukera Berdintasunerako Udal Planaren garapena udalaren berezko aldagai ugariaren menpe dago. Kapitulu honetan, aldagairik garrantzitsuenak aztertuko ditugu.

® Emakumeen administrazio-egitura

Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Udal Planaren inplementazioaren eragileztat agertzen den lehenengo aldagaia, izan ere, emakumeen bizi-baldintza onak sustatzeko *administrazio-egitura egotea* da. Izan ere, egitura hori egonez gero, egiturak berak Plan baten sorrera eta onespena sustatu behar duela pentsa daiteke.

Egindako azterketak egiaztatu egiten du (%95eko konfiantzarekin) Berdintasunerako Plan baten onespena udalean berdintasun horren alde lan egiten duen egituraren bat egotearen arabera dela.

11. grafikoa.



Izan ere, aurreko grafikoan ikusten den bezala, Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Plana onetsi duten udalerririk

guztietako gehienetan (%92.90) berdintasun hori lortzeko lan egiten duen administrazio-egitura dago.


Datu horietatik ondorioztatzen denez, Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunaren alde lan egiten duen egitura bat egotea lagungarria da Aukera Berdintasunerako Plana sortzeko.

### ® Udalerriko biztanle kopurua.

Bigarrenez, Berdintasunerako Plana onestearen eta *udalerriko biztanle kopuruaren* artean egon daitekeen lotura aztertzen da.

Kasu honetan, Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Udal Plana egotearen zergatietariko bat biztanle kopurua da.

12. grafikoa.



Izan ere, grafikoan datozen datuek agerian jartzen dutenez, Aukera Berdintasunerako Plana onetsita duten udalerrien %77.70ek 5.000 biztanle baino gehiago dute, eta 5.000 biztanletik beherakoak %22.30 baino ez dira.

Aukera Berdintasunerako Plana onetsi ez duten udalerrien %86, aldiz, 5.000 biztanletik beherako udalerrak dira.

Bi aldagai horien arteko lotura kausalean oinarrituz (Aukera Berdintasunerako Planaren edo Ekintza Positiboen Planen onespina eta udalerriko biztanle kopurua), ezin daiteke ahaztu erakundeek, hain zuzen ere, Bizkaiko Foru Aldundiak, 5.000 biztanletik beherako udalei emandako laguntza.

Izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak 2005erako ezarrita dituen helburuen artean honako hau sartzen da: *"Bizkaiko Lurralde Historikoetako udaletan emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna eta generoko politikak bultzatzeko jarduerak egiteko proiektuak eta **planak** sustatzea, eta horien jardueren planifikazioan eta garapenean zeharkakotasunaren balioak eta mekanismoak jasoko dira"*<sup>10</sup>.

Horrela, 5.000 biztanletik beherako edo landa guneko udalerriek laguntza handiagoa jasotzen dute, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna bultzatzen duten proiektuak garatzeko; izan ere,

5.000 biztanletik gorako udalerriek Plana egiteko baliabide gehiago dute (horietako %77.7k dagoeneko onetsita dute Plana).

Aldundiaren dirulaguntza jaso dezaketen jardueren artean, hauxe sartzen da: “*Ekintza Positiboko Udal Planak lantzeko eta abiatzeko konpromisoa hartzen duten proiektuak*”<sup>11</sup>. Dirulaguntzen emakida hautatzeko eta baloratzeko irizpideen artean, izan ere, “*Berdintasunerako Udal Plana lantzeko eta onesteko konpromisoa*” sartzen da (15 puntu)<sup>12</sup>.

Horrek agerian jartzen du Bizkaiko Foru Aldundiak udalerrri txikietakoko Ekintza Positiboko Udal Planen garapenari ematen dion laguntza.

### ® **Udalaren aurrekontua**

Hirugarrenez, Berdintasunerako Plana onestearen eta *Udalaren aurrekontuaren* arteko loturarik ote dagoen aztertzen da.

Estatistika-azterketak berretsitakoaren arabera, udal baten urteko aurrekontuak eragina dauka bertan Aukera Berdintasunerako Plana onestean edo ez onestean. Gogoratu egin behar da Berdintasunerako Plan baten barruan, ekintza positiboen multzo handia sartzen dela, eta,

---

<sup>10</sup> Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 21eko 249/2004 FORU DEKRETUA. 2. zenbakiko BAO, 2005eko urtarrilaren 4koa.

<sup>11</sup> Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 21eko 249/2004 FORU DEKRETUA. 2. zenbakiko BAO, 2005eko urtarrilaren 4koa. **3. artikulua.**

<sup>12</sup> Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 21eko 249/2004 FORU DEKRETUA. 2. zenbakiko BAO, 2005eko urtarrilaren 4koa. **5. artikulua.**



horiek betarazteko, beharrezkoa da partida ekonomiko nahiko handia edukitzea.

Horrela, Aukera Berdintasunerako Planen bat onetsita duten udaletako %75ek urteko 6.010.121 eurotik gorako aurrekontua dute.

11. taula.

<b>LOTURA: BERDINTASUNERAKO PLANAREN ONESPENA – UDALAREN AURREKONTUA</b>			
		<b>PLANAREN ONESPENA</b>	
		<b>BAI</b>	<b>EZ</b>
<b>URTEKO BATEZ BESTEKO AURREKONT.</b>	18.030.363 € baino gehiago	%35.7	%5.6
	6.010.122-18.030.363 € bitartean	%39.3	%11.1
	3.005.061-6.010.121 € bitartean	%7.1	%15.3
	600.013-3.005.060 € bitartean	%17.9	%48.6
	601.012 € baino gutxiago	%0	%19.4
		<b>%100</b>	<b>%100</b>

Aukera Berdintasunerako Plana onetsita ez duten udalerrri guztien artetik, %68k urteko 3.005.060 eurotik beherako aurrekontua dute; plan hori onetsita dutenen artean, ostera, ehuneko hori %17.9koa da.

Horrenbestez, datuek agerian jartzen dutenez, udal baten urteroko aurrekontua zenbat eta handiago izan, errazago abiatzen dira ekintza positiboak dituzten planak, Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasuna sustatzeko.

### ® **Udal gobernuko alderdi politikoa**

*Azkenik, udalerriko gobernuan dagoen alderdi politikoaren eta Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Plan baten onespeneren arteko loturarik ote dagoen aztertzen da.*

Gogoratu behar da, 4. taulan adierazitakoaren arabera, Euzko Alderdi Jeltzaleak Bizkaiko udalerrri guztien %79.46 gobernatzen dituela. Datu horri Eusko Alkartasunarekin koalizioan dituen udalerrriak gehituz gero, esan daiteke PNVk Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrri guztien %85.71n gobernatzen duela.

Datu horiek aintzat hartuta, ezin daiteke lotura kausalik ezarri bi aldagaien artean. Esan behar da, hala eta guztiz ere, Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Planak onetsi ez dituzten udalerrri bakarrak EAren gobernua dutenak direla.

Hala ere, planen onspena ez da ideologia politikoen araberakoa bakarrik, udalerrietan gobernatzen duten taldeen apustu eta gogo pertsonalen araberakoa baizik, baita horiek zenbait legegintzalditan

finkatzearen araberakoak ere, horrela hasitako proiektuen jarraipena eta burutzapena sustatzen baita.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundiak baliabide ekonomiko nahiz materialik eta giza baliabiderik gabeko udalerrri txikien alde egin duen apustuak sustatu egin ditu apustu pertsonal horiek, Aukera Berdintasunerako proiektuak abiatzeko, Aukera Berdintasunaren arloko dirulaguntzen eta laguntza teknikoaren bidez.

Horixe gertatzen da aurrekontu ekonomiko mugatuak, biztanle kopuru txikia eta giza baliabide gutxi dituzten udalerrien kasuan; izan ere, horietariko batzuek udalerriko emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Plana diseinatu eta onetsi dute.

Horien artean, aipagarria da Areatzaren kasua; Arratia – Nerbioi eskualdeko udalerrri horrek 1.100 biztanle eta 3.000.000 eurotik beherako aurrekontua dauka, eta 2004ko abenduan "Aukera Berdintasunerako Udal Plana" aurkeztu zuen.

Laburtzeko, Aukera Berdintasunerako Udal Planaren onespenean eragin zuzena duten aldagaiak zerrendatzen dira:

#### **AUKERA BERDINTASUNERAKO UDAL PLANAREN ONESPENEAN ERAGINA DUTEN ALDAGAIK**

Emakumeen bizi-baldintzen eta Aukera Berdintasunaren alde lan egiten duen **administrazio-egitura** egotea

Udalerrietako **biztanle kopurua**; 1.000 biztanletik beherako udalerrri

batek ere ez du Aukera Berdintasunerako Planik onetsi

Udalerrietako **urteko batez besteko aurrekontua**; izan ere, 600.000 eurotik beherako aurrekontua duen udalerrri batek ere ez du Berdintasunerako Planik onetsi.

Udal gobernuetan iraunkortasunez finkaturiko **alderdi politikoek** erraztu egiten dute proiektuen garapena

### **3.6. AUKERA BERDINTASUNENKO POLITIKAK**

Aukera Berdintasuneko Politikak erakunde publikoek abiatutako neurri politikoak dira, emakumeen eta gizonen arteko gizarte desberdintasuneko egoerak arintzeko eta zuzentzeko.

Unean uneko ekintzak dira eta ez daude testuinguruan txertatuta, Aukera Berdintasunerako Plana osatuko lukeen osotasuntzat.

Udalerri batean, Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasuna sustatzen duten politikak garatu ahal dira, eta, hala eta guztiz ere, Berdintasunerako Udal Plana onetsi barik egon daiteke. Izan ere, ikerketan parte hartu duten udalerrien %50ek diote Aukera Berdintasuneko Politikak egiten dituztela, baina Aukera Berdintasunerako Udal Plana onetsita dutenak %28 baino ez dira.

#### **3.6.1. Bizkaiko Udaletako Aukera Berdintasuneko Politiken azterketa**

Nabarmendu beharreko lehenengo alderdia hauxe da: udalerrietarik gehienetan Berdintasuneko Politiketari txertaturiko ekintza eta jarduerak garatzen dituzte, eta, kasu batzuetan, horiek aurretiaz emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Plan batean zehaztuta daude.

Estatistiketako datuek aditzera ematen dutenez (%89.28ko erantzun-indizearekin), Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrien %50ean Aukera Berdintasuneko Politikak **egiten dira**, edo, Emakumearen eta Berdintasunaren arloetatik esan dutenez, Aukera Berdintasuneko Politiken eremuan txertaturiko helburuak dituzten ekintzak egiten dituzte. Gainerako %50ek esan dute orain arte **ez** dutela egin emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasuna sustatzeko ekintzarik.


Etorkizunean Aukera Berdintasuneko Politikak garatzeko aurreikuspenari dagokionez, inkestari erantzun dioten udalerrien %22k (halako politikarik egiten ez duten udalerriak) esan dute aurreikusita dutela, eta gainerako %78k esan dute oraindik ez dutela halakorik aurreikusita.

Oraindik ere Aukera Berdintasuneko Politiken inplementazioa aintzat hartzen ez duten udalerrien ehunekoa kontuan hartuta, beharrezkoa da arazoaz jabetzeko lan handia egitea arlo guztietan (arloan politikoa eta teknikoa), Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera

Berdintasunaren garrantzia ulertzeko eta Berdintasuneko politiken implementazioa sustatzeko.

Bestalde, udaletako beste arlo edo sail batzuetan Aukera Berdintasunaren alde lan egiten duten arloen mendekotasunaren ondorioz (%57.10), Berdintasuneko Politikak udaletako zenbait arlotatik kudeatzen eta garatzen dira.

13. grafikoa.



Grafikoan ikusten denez, inkestan parte hartu duten udalerrietako arlo nagusiak, Berdintasuneko Politiken barruan ekintzarik gehien egiteari dagokionez, Emakumea eta Berdintasuna, Kultura eta Gizarte Ongizatea izan dira.



Datu horiek guztiz zentzuzkoak dira, kontuan hartuta (lehen esan dugunez) Berdintasunaren eta Emakumearen arloak beste arlo batzuekiko mendekotasuna dutela (adibidez, Kulturaren eta Gizarte Ongizatearen arloekiko mendekotasuna) eta arlo horiek azterturiko udalerrri guztien %35ean baino ez daudela.

Horri dagokionez, "Beste batzuk" deritzon arloan Alkatetza, Kirolak eta Hezkuntza aipatu dira, partaidetza urria izan duten arlotzat; horietan egindako ekintzen artean, udalerrietako ikastetxeetan Berdintasunaren inplementaziora orientaturiko kirol jardunaldiak edo jarduerak dira aipagarriak.

Hala eta guztiz ere, Aukera Berdintasuneko Politikak egiten dituzten arloen identifikazioaren bidezko lehenengo hurbiltzea egin ondoren, arlo horien arteko zeharkakotasun erlazioak aztertu behar dira.

### **3.6.2. Aukera Berdintasuneko Politiken zeharkako erlazioen azterketa**

Zeharkakotasuna, hau da, *generoko berdintasunaren ikuspegia arlo politiko guztietan sartzea*, Bizkaiko Foru Aldundiko Generoko Politiken Arloaren funtzioetariko bat da, eta Bizkaiko udaletako arloen

funtzioa ere izan beharko litzateke, emakumearen berdintasunaren alde lan egiteko.

Bizkaiko udaletako arlo desberdinetan Berdintasuneko Politiketari dagoen zeharkakotasuna aztertzeko estatistika-azterketa eginda ikusten denez, udalen **%88.6k** zeharkakotasuna aplikatzen dute, eta hori kontuan hartzen ez duten udalerriak **%11.4** dira gure lurralde historikoan.

Hurrengo taulan, Berdintasunaren arloko zeharkakotasunari buruzko datu zehatzak agertzen dira.

12. taula.

<b>AUKERA BERDINTASUNAREN ARLOAN ZEHARKAKOTASUNA MANTENTZEN DUTEN ARLOAK</b>		
<b>GIZARTE ONGIZATEA</b>	BAI	<b>%83.9</b>
	EZ	%16.1
<b>ENPLEGUA - HEZIKETA</b>	BAI	<b>%67.7</b>
	EZ	%32.3
<b>AISIALDIA - GAZTERIA</b>	BAI	%51.6
	EZ	%48.4
<b>KULTURA</b>	BAI	<b>%86.7</b>
	EZ	%13.3
<b>KIROLAK</b>	BAI	%46.7
	EZ	%53.3
<b>INGURUMENA</b>	BAI	%23.3
	EZ	%76.7

<b>HIRIGINTZA</b>	BAI	%33.3
	EZ	%66.7
<b>EUSKARA</b>	BAI	%36.7
	EZ	%63.3
<b>BESTE BATZUK</b>	BAI	%43.3
	EZ	%56.7

Aukera Berdintasuneko Politikak garatzeko zeharkako erlazioak mantentzen dituzten udaletako sailak edo arloak aztertzean ikusten denez, arlo horiek Gizarte Ongizatea, Enplegua eta Heziketa (Toki Garapeneko Agentziak), Aisialdia, Gazteria eta Kultura dira.

Bigarrenez, Kirola, Ingurumena, Hirigintza eta Euskara egongo lirateke, eta horiekin, esaten denez, zeharkakotasun erlazioak daude Aukera Berdintasuneko Politikak garatzeko, baina ehuneko txikiagoan (%50 baino gutxiago).

Gainera, "Beste batzuk" taldean Turismoa, Administrazioa edo Langileria bezalako arloak sartzen dira; horiekin kasu gutxi batzuetan baino ez dira eduki lankidetzaz-erlazioak, Aukera Berdintasunaren arloan, ekintza oso jakinak ginez.

Aipagarria da Hirigintza, Ingurumen, Ekonomia eta Ogasuna, Azpiegiturak, Alkatetza eta halako gaiak ia ez agertzea, udaleko beste arlo batzuekiko zeharkakotasun-erlazioen mantenamendua aipatzen denean.

Emakumeari eta Generoko Berdintasunari loturiko gaiari gizarte zerbitzuen izaera ematen zaie, Emakumearen administrazio-arloan, Gizarte Zerbitzuetan edo Gizartekintzan.

Hain zuzen ere, Aukera Berdintasunaren arloan zeharkako erlazioak ez dituzten arloak dira garrantzitsuenak udalen barruan; izan ere, horiek ez daude inoiz ere mankomunatuak, esate baterako, Gizarte Zerbitzuak, eta udaletik bertatik lantzen dira beti, eta, kasurik gehienetan, Alkatetzatik. Hala eta guztiz ere, badirudi arlo horiek apur bat baztertu egin dutela Generoko Berdintasuna sustatzeko politiken implementazioa.

Azkenik, esan behar da kasu batzuetan, udaleko beste arlo batzuekiko zeharkakotasuna aipatzean, udaletako organismo autonomoak aipatu direla, esate baterako, "Enpleguko Udal Zentroak", Behargintza, eta horiekin lankidetzan dago emakumeen artean enplegua sustatzeko.

Azken batean, ezin da ukatu udaletako arlo batzuen arteko nolabaiteko zeharkakotasuna dagoela Aukera Berdintasuneko Politikak garatzeko orduan. Hala eta guztiz ere, ez dira Aukera Berdintasunaren aldeko neurri politikoak inplementatzen udaletako arlo guztietan, nahiz neurri horiek arlo batzuek soilik sustatu.

Bizkaiko Foru Aldundiak dioenez, *"Zeharkakotasunerako beharrezkoa da generoko ikuspegia Herri Administrazioek garaturiko*

*politika nahiz ekintza guztietan integratzea eta baterako ekintza garatzea*<sup>13</sup>.

### **3.6.3. Aukera Berdintasuneko Politikak eta horien inplementazioan eragina duten aldagaiak**

Jakina denez, Aukera Berdintasuneko Planak arloetan banatzen dira eta horien barruan, aldi berean, bi zati nagusi sartzen dira:

© Helburuak

© Ekintzak

Jarduketa arlo bakoitzean ezarritako helburuak, horrenbestez, ekintza positiboen bitartez beteko dira.

Hala eta guztiz ere, lehenengo eta behin, azterturiko Bizkaiko udaletan Aukera Berdintasuneko Politikak baldintzatzen dituzten aldagaiak aztertu behar dira, ondoren inplementaturiko ekintza positiboak ikuskatzeko.


#### **A) Berdintasuneko Politiken inplementazioan eragina duten aldagaiak**

<sup>13</sup> Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 21eko 249/2004 FORU DEKRETUA. 2.

## ↓ Emakumearen egitura bat egotea

Egindako estatistika-azterketak ezartzen duen lehenengo erlazio kausalak adierazitakoaren arabera, mendekotasun erlazioa dago udaletan Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasuna sustatzeko administrazio-egitura egotearen eta Berdintasunaren aldeko politikak egitearen artean.

14. grafikoa.






Grafikoan ikusten denez, Berdintasun Politikak egiten dituzten udalen kasuan, Emakumearen eta Berdintasunaren egiturarik ez dutenen ehunekoak %29.20ra murrizten da.

Aldiz, Berdintasuneko Politikak implementatzen dituzten udalerrien %88.60k Emakumearen eta Berdintasunaren arloren bat dute.

#### ↓ Aukera Berdintasuneko Udal Planaren onespena

Berdintasuneko Udal Planaren onesperek eragina dauka Aukera Berdintasuneko Politiken implementazioan.

15. grafikoa.



Grafikoan ikusten denez, Aukera Berdintasuneko Politikak inplementatu dituzten udalen %56k onetsita dute Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Udal Plana.

Aukera Berdintasuneko Politikak egin baina Plana onetsi barik duten udalen ehunekoa %44koa da.

#### ↓ **Udalerriaren neurria**

Udalerriaren neurriak eragina dauka bertako funtzionamenduari loturiko alderdi askotan.

Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasuna sustatzen duten politikak egiteari dagokionez, udalerriaren neurria eragina duen faktorea da.

Hori egiaztatzen duen datua, izatez ere, Aukera Berdintasuneko Politikak sustatzen ez dituzten udalerrien %90ek 5.000 biztanle baino gutxiago edukitzea da.

Bizkaiko udalerrien neurriaren irizpidearekin jarraituz, Foru Aldundiak **dirulaguntzak** ematen ditu Generoko Politikak inplementatzeko. Aurreko urteetan ez zen ezartzen udalerriaren biztanle kopuruaren arabera baldintzarik, dirulaguntza horiek emateko; hala ere, 2005etik aurrera baldintzak ezartzen dira, eta 5.000 biztanletik beherako udalerriek soilik jasotzen dituzte dirulaguntzak.

Ikerketan parte hartu dutenek emandako erantzunen arabera, udalen %25ek dirulaguntzaren bat jaso dute, Bizkaiko Foru Aldundiko Generoko Politiken Arlotik.

Dirulaguntzei buruzko balorazioak honako hauek dira:

Oso txarra	Txarra	Hala-holakoa	Ona	Oso ona
%7	%16.3	%14	<b>%53.5</b>	<b>%9.3</b>

Ikusten denez, elkarrizketaturiko udalen %62.8aren ustez, erakunde horren dirulaguntzak "onak" edo "oso onak" dira, horien zenbatekoari dagokionez.

Berdintasuneko Politiken ezarkuntza maila, neurri handian, Aldundiak emandako dirulaguntzen araberakoa da; horrenbestez, 5.000 biztanletik gorako udaletako langileak kezkatuta dabilta, "orain arte Aldundiaren dirulaguntzak jaso" arren aurten "ez baitituzte jasoko"; izan ere, horren ondorioz, Aukera Berdintasunera bideraturiko jardueren murriztapena egon daiteke.

Azkenik, hasieran balorazioaren eskala lehen azaldutakoa izan arren, "Oso ona" eta "Txarra" balioen ordean "**Oso urriak**" eta "**Urriak**" balioak sartu dira, dirulaguntzen zenbatekoari dagokionez, inkestari erantzun dioten pertsonen horixe eskatu baitute. Horiek esandakoaren

arabera, "ez dira txarrak, urriak baizik, beti ez direlako nahiko programaturiko jarduera guztiak egiteko".

#### ↓ **Udalaren aurrekontua**

Udalerriaren neurriaren kasuan bezala, aurrekontuak ere eragin handia dauka udalen eta, beraz, udalerrien funtzionamenduan.

Aurreko kasuaren moduan, esan daiteke (%95eko konfiantza mailarekin) Bizkaiko udalerrien urteko aurrekontuak baldintzatu egiten duela Aukera Berdintasuneko Politiken inplementazioa.

Horrela, Aukera Berdintasuneko Politikak egiten dituzten udalerrien %68k 3.005.060 €-tik gorako urteko aurrekontua dute.

3.005.060 €-tik beherako urteko aurrekontua duten udalerrien %32k soilik sustatzen dituzte Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasuneko Politikak udalerrian.

Horrenbestez, ikusten da udalerriaren aurrekontuan eragin handia duela Berdintasuneko Politiken inplementazioan.

Bestalde, "urteko aurrekontua" deritzon aldagaia ez ezik, udaletan "*Aukera Berdintasunaren arlorako aurrekontu berezirik*" ote dagoen ere aztertu da.

Kasu honetan, ikerketan parte hartu duten udalerrien %43k aurrekontu partida berezia dute Aukera Berdintasunerako.

Gainera, %57an ez dago halako aurrekontu partidarik, eta Berdintasuneko Politikak garatzeko edo Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako jarduerak, berriz, udaleko beste arlo batzuen aurrekontutik ateratzen dute, esate baterako, Kulturatik eta Gizarte Ongizateetik, baita dirulaguntzetatik ere.

Azterturiko udaletan Aukera Berdintasunerako aurrekontu berezia egotea euren urteko aurrekontuaren arabera da.

Horrela, 3.005.060 €-tik gorako urteko aurrekontua duten udalen %87.7k aurrekontu partida hori dute; hala eta guztiz ere, 601.012 €-tik beherako urteko aurrekontua duten udalen artean batek ere ez dauka halako partidarik aurrekontuetan.


#### ↓ **Udal gobernuan dagoen alderdi politikoa**

Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietako egoera politiko berezia aintzat hartuta (Euzko Alderdi Jeltzalearen nagusitasunari dagokionez), alderdi politiko guztien gobernuak duten udalerriek esan dute Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasuneko Politikak garatzen dituztela.

Hala ere, ezin daiteke esan alderdi politikoak ez duela eraginik Aukera Berdintasuneko Politiken implementazioan; izan ere, PNVk

horrenbeste alkatetza edukitzean, emaitzak ezin dira extrapolatu ikerketan parte hartu duten udalerrri guztietara, horien gobernuan edozein alderdi politiko egonda ere.

16. grafikoa.



Horrenbestez, alderdi politikoak eragina izan dezake udalak Gizonen eta Emakumeen arteko Aukera Berdintasunaren aldeko apustua egitean (Berdintasuneko Politiken inplementazioaren bidez), baina badirudi alkatetzetan dauden pertsonen apustu pertsonalek eta sentsibilitateek garrantzi handiagoa dutela Berdintasunaren arloan.

↓ **Elkartegintza**



Bizkaiko Foru Aldundiak Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako eta Generoko Politiketarako Foru Planean (2004-2007) planteatzen duen helburuetariko bat "*Emakumeen arteko elkartegintza sustatzea*" da<sup>14</sup>.

Horrenbestez, aztertu egin behar da ea loturarik ote dagoen Aukera Berdintasuneko Politiken inplementazioaren eta emakumeen arteko elkartegintzaren artean.

Estatistika-ikerketa egin ondoren, esan daiteke bi aldagai horien arteko lotura dagoela. Izan ere, emakumeen elkarteak dituzten udalerrien arteko %72an Aukera Berdintasunerako Politikak inplementatzen dira, eta gainerako %26an ez (kasu honetan, elkarrizketatuen %2k ez dakite euren udalerrian emakumeen elkarterik dagoen ala ez).

Aipagarria da emakumeen elkarteek udalerrietan duten eginkizuna; izan ere, kasurik gehienetan erlazio zuzena dute Aukera Berdintasuna sustatzen duen udal arloarekin; horrekin bilerak egin, jarduerak koordinatu eta halako jarduketak egiten dituzte.

## **B) Berdintasuneko Politikak inplementatzeko ekintza positiboak**

<sup>14</sup> Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako eta Generoko

Ikerketan parte hartu eta Aukera Berdintasuneko Politikak egiten dituztela esan duten udalengan, egiten diren jardueren arabera azpizatiketa egin da, eta jarduera horietariko batzuk labur-labur azalduko ditugu, bereziak direlako.

13. taula.

JARDUERAK	Egiten dituzten udalen %
Ikastaroak	%84
Hitzaldiak, hizketaldiak, eztabaidak	%78
Jardunaldiak	%66
Erakusketak	%34.7
Beste batzuk	%73.5

Taulan ikusten denez, udalen %84k ikastaroak eta ia %80k hizketaldiak, hitzaldiak edota eztabaidak egiten dituzte, Aukera Berdintasunari edo generoko ikuspegiari loturiko gaiei buruz. Erakusketak egiten dituzten udalen ehunekoa, berriz, %34.7raino murrizten da.

Ondoren, jarduera talde bakoitzaren barruko ekintzak azalduko ditugu.

## **Ikastaroak**

Udal askok Aukera Berdintasunera orientaturiko eta Generoko Politiken arloaren barruko ikastaroak antolatzen dituzte. Kasu batzuetan, ikastaroak emakumeentzat bakarrik dira, eta beste zenbaitetan, berriz, emakumeentzat eta gizonentzat; izan ere, Aukera Berdintasuna emakumeen eta gizonen ardurako gaia da.

Bestalde, Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunari buruzko ikastaroak, neurri handian behintzat, udalak arlo horretara bideratzen duen aurrekontuaren arabera dira. Izan ere, halako ikastaroak egiten dituzten udalen %83.3k euren aurrekontuan zenbateko jakina dute Berdintasunerako.

Aukera Berdintasuna sustatzeko egiten diren ikastaroen artean, honako hauek aipa daitezke:

- "Hizkuntza ez-sexistarako egokitzapena eta komunikazioa";
- Emakumearen sustapenerako IKASGELA Programaren barruan antolaturiko ikastaroak;

- "Hizkuntzaren sentsibilizazioa" eta "Generoko biolentzia" ikastaroak;
- "Aukera Berdintasunaren arloko heziketa" ikastaroa;
- Generoko heziketa ikastaroak udaletako langile politikoentzat eta langileentzat;
- Udaletako baterako erantzukizuneko eta lan-trukeko ikastaroak;
- Emakumeen aurkako biolentziari buruzko ikastaroak eta tailerrak.

### **Hizketaldiak, hitzaldiak, eztabaidak**

Udaletan Generoko Berdintasunaren arloan antolatzen diren hizketaldiak, hitzaldiak eta eztabaidak, kasurik gehienetan, biztanleria sentsibilizatzeko kanpainen barruan sartzen dira, emakumeek gizonekiko duten oztopoei dagokionez.

Udalerrri batzuetan, idazleak diren emakumeek hitzaldiak eman dituzte, esate baterako, Toti Martínez de Lezeak eta Dulce Chacónek, eta horrek aditzera ematen du interesa dagoela literatura hiritarrei emakumearen ikuspegitik helarazteko.

## Jardunaldiak

Ikerketan parte hartu duten udalerrri ia guztietan egiten diren jardunaldiak egun jakinetan izaten dira, adibidez, martxoaren 8an (Emakume Langilearen Eguna) eta azaroaren 25ean (Emakumeek jasandako Biolentziaren aurkako Nazioarteko Eguna).

Horiek ez ezik, udalerrri batzuek Emakumeari buruzko jardunaldia antolatzen dute, esaterako, Ugao-Miraballesek, eta bertan, Emakume Ekoizleen Nekazaritza Azoka egiten dute. Azoka horretan emakumearen irudia errebindikatzeko da, emakumea funtsezkoa baita baserriaren mantenamendurako. Horrela, beste pauso bat eman nahi da emakume baserritarra ahalduzko prozesuan.

Azkenik, "Emakumea eta Kirola" izeneko kirol jardunaldiak egiten dira; horietan, emakumeek kirolaren munduan duten eginkizuna sustatu da, eta udalerrri batzuetan, gainera, Athletic Klubeko emakume-taldearen bisitaldia izan dute.

## Erakusketak

Generoko berdintasunaren arloan antolaturiko erakusketak Emakumean oinarritu dira eta, kasu askotan, emakumeek soilik egin dituzte.

Halaber, filmak ere proiektatzen dira "Bideo Forum" izeneko jardueretan, eta horietan, emakumeen bizitza, generoko biolentzia kasuak eta halako gaiak ikusten dira.

Halaber, udalerrri batzuetan bertako emakumeen argazki-erakusketak egin dira, eta diapositiba saioak ere proiektatu dira.

### **Beste batzuk**

Emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasuneko Politiken arloan egindako "beste batzuk" atalean, era askotako jarduerak egin dira eta horiek atal honetan azalduko ditugu; izan ere, kasu batzuetan lehenago azalduko atalen batean sartzeko modukoak izan arren, merezi du banan-banan aipatzea eta komentatzea.

Udaletan Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasuna sustatzeko egin diren ekintzarik aipagarrienak honako hauek izan dira:

- / Udaleko dokumentazioa ikuskatzea eta sexista ez den hizkuntzara egokitzea.
- / Hizkuntza ez-sexistaren Gidaliburua prestatzea, hezkuntza eta komunikazioa egokitzeko.
- / "Gizonak Biolentziaren aurka" proiektua.



- / Emakumeen oztopoak eta bazterkeria aurreikusteko eta zuzentzeko ekintza positiboak.
- / Materialen edizioa: liburuxkak, agendak, poltsak, etab., Aukera Berdintasunari buruz (udalerriko biztanleen artean banatuta).
- / **Emakumearen Etxea** eraikitzea. Balmasedako eta Ermuko udalek soilik dute emakumearen etxea.

**Balmaseda:** Balmasedako Emakumearen arlotik diotenez, Emakumearen Etxeak "hausnarketarako, azterketarako eta ekintzarako eremu irekia eta dinamikoa izan nahi du; gizonak eta emakumeek har dezakete parte, guztiok ere generoko parekotasuna eta dibertsitatearen errespetua lortzeko".

**Ermua:** Bizkaian sorturiko Emakumearen lehenengo Etxea Ermuan dago; biltzeko eta trukatzeko gunea da, behar duten pertsona, talde eta emakume elkarte guztientzat. Gainera, Liburutegiak, Udaleko Aukera Berdintasunaren Arloarekin hitzarmena eginez, bibliografia gune espezializatua eta dokumentazio zentroa sortu ditu, eta bertan baliabide oso zehatzak daude.

- / **Jabekuntzaren Eskola.** Getxo, Ermua eta Basauriko udalerriek, eta Ondarroakoak ere bai oraintsutik, Jabekuntza Eskola martxan jartzeko asmo handiko proiektua egin dute, eta

horren helburu nagusia hauxe da: *“emakumeen berdintasunezko partaidetza sustatzea, bizitzaren arlo guztietan, eta emakumeen lidergoa finkatzea bizitza sozialean, politikoan eta kulturean”*.

Lehenengo bi ekintzek udaleko funtzionarioen inplikazio zuzena eragiten dute, sexu desberdineko pertsonen arteko benetako berdintasuna lortzeko lanean, eta gainerakoek, batik bat, hiritarren eragina.

Aditzera eman behar da, ikerketan parte hartu duten udalerririk batzuetan, Aukera Berdintasuna sustatzeko ekintza zehatzak egiten hasi baino lehen, biztanleriaren diagnostiko lan handia egin zela; izan ere, biztanleriaren ezaugarriak, beharrezkoak eta abar aztertutako ziren, udalerririk emakumeen eta gizonen arteko benetako Berdintasunaren bidea sustatzeko erradiografia lortzeko. Beste kasu batzuetan, hala eta guztiz ere, ikerketan udalerririk emakumeen egoera baino ez da aztertu.


Azkenik, aztertutako udalerririk gehienetan, ekintzak hiritar guztiengana bideratuta egon dira, baina udalerririk batzuetan udaletako langileengana zuzenduta egon dira; adibidez, hizkuntza ez-sexistaren erabilerrarako egokitzapenaren kasuan. Lehenengo eta behin udaletako langileak “hezi” behar izatea justifikatzeko (hiritarrak “hezi” baino lehen), esaten da komeni dela erakunde publikoek “eredu egokia” eskaini behar dietela hiritarrei.

### C) Berdintasuneko Politikak sustatzeko ekintza positiboak egiteko modua

Daturik interesgarrienetariko bat, Bizkaiko udalerrietan gai batzuetarako mankomunitateetan batzeko ohitura handia dagoela kontuan hartuta (Bizkaian 19 mankomunitate daude orain), Aukera Berdintasunak egiteko modua jakitea da, hau da, udal bakoitzean edo beste udal batzuekiko mankomunitatean egiten ziren jakitea.

Hala eta guztiz ere, azterketa kuantitatibotik ondorioztatzen diren estatistika-datuen arabera, Berdintasuneko Politikak egiten dituzten udalen %6k soilik egiten dute mankomunitatean, eta hori, gainera, eskualdeko udalerriekin egiten da beti.

17. grafikoa.



Azkenik, orain arte halakorik egin ez duten udalek Aukera Berdintasuneko Politikak garatzeko aurreikuspenari dagokionez, estatistika-azterketak berretsi egin du aukera hori udal horien %22k soilik hartzen dutela aintzat; kasu askotan, erantzuna justifikatzeko, baliabide ekonomikorik eta gaitasuneko langilerik ez edukitzea aipatzen da. Berrito ere, agerian gelditu da aldagai ekonomikoak Aukera Berdintasunari loturiko jardueren garapenerako duen garrantzia.

Azken batean, kapitulu honetako ondorio nagusiak honako hauek dira:

- Beharrezkoa da Aukera Berdintasuneko Politiken inplementazioa sustatzea, Bizkaiko udalerrien %50ek baino ez baitute halakorik egiten. Gainera, neurri politikorik inplementatzen ez duten udalen %22k soilik dute aurreikusita aurrerantzean halakoak inplementatzea.

- Praktikan zeharkakotasuna dago Berdintasuneko Politiken inplementazioan, baina hori udalen barruko hiru arloa mugatzen da (Gizarte Ongizatea, Heziketa Enplegua eta Kultura); horrenbestez, ezinbestekoa da maila politiko eta tekniko guztiak eta arlo guztiak Aukera Berdintasunaren garrantziaz jabearaztea.

- Berdintasuneko Politiken inplementazioan eragin zuzena duten aldagaiak honako hauek dira: Emakumearen arloa egotea, Berdintasunerako Plana onestea, udalerriko biztanle kopurua, aurrekontua eta emakumeen elkartegintza maila.

#### 4. **HIPOTESIEN EGIAZTAPENA**

Ikerketan planteaturiko helburu guztiak betetzeko, ikerketa prozesua gidatu duten lan-hipotesiak landu dira.

Horrela, ikerturiko aldagaien arteko erlazioak ezarri dira, eta onetsi edo ukatu egin behar da horiek hipotesien bidez egiaztatzea.

##### **1. hipotesia.**

*“Bizkaiko udalerrietan emakumeen eta gizonen Aukera Berdintasuneko Politiken garapenerako administrazio-egitura espezializatuaren ezarkuntza udaletako biztanle kopuruaren eta urteko aurrekontuaren arabera da”.*

Txosteneko 3.3.4. puntuan azaldutakoaren arabera, bidezko estatistika-ikerketa egin ondoren, esan da Aukera Berdintasuneko Politiken garapenerako administrazio-egitura espezializatuaren ezarkuntza udalerriko biztanle kopuruaren arabera dela. Halaber, udaleko aurrekontu ekonomikoak ere eragina dauka egitura horren ezarkuntzan.

Beraz, hipotesien egiaztapena onargarria da, hauxe egiaztatu baita:

“Udalerriko biztanle kopurua zenbat eta handiagoa izan, bertako aurrekontua ere hainbat eta handiagoa da. Aurrekontu ekonomikoa zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta handiagoa da Emakumearen berdintasunaren alde lan egiten duten egituren ezarkuntza maila”.

## **2. hipotesia.**

*“Aukera Berdintasuneko Politiken zeharkakotasuna zuzenki proportzionala da udalerrian emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Plana egotearekin”.*

Esan daiteke (%95eko konfiantzarekin) hipotesi hori bete egiten dela. Horrela, Aukera Berdintasuneko Udal Plana egotea lagungarria da Berdintasuneko Politiken zeharkakotasun erlazioetan.

## **3. hipotesia.**

*“Udalerriko emakumeen elkartegintza mailak eragin zuzena dauka udalerrietan emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Politiken garapenean”.*



Hipotesi hori onartu egiten da, egiaztatu egin baita azterturiko udalerrietan emakumeen elkarteak egoteak eragin zuzena duela Aukera Berdintasuneko Politiken inplementazioan.

Izan ere, emakumeen elkarteak eta Aukera Berdintasuneko Politiken inplementazioa bateratzen dituzten udalerrri kopurua handia da (%72).

#### **4. hipotesia.**

*“Udalerriko biztanle kopurua funtsezko aldagaia da udalek Aukera Berdintasunaren Arloari loturiko ekimenak garatzeko”.*

Ikerketa osoan, udalerrien biztanle kopuruak presentzia handia izan du, aldagai horrek garrantzi handia baitauka ekintza asko egiteko aukerari dagokionez, eta ekintza horiek, Generoko Berdintasunarekin ez ezik, lotura estua dute udalerrietako bizitzaren barruko beste arlo batzuekin ere.

Izan ere, udalerriko biztanle kopuruak eragin zuzena dauka emakumeen bizi-baldintzak hobetzeko administrazio-egituraren ezarkuntzan, Aukera Berdintasunerako Udal Plana onesteko eta Aukera Berdintasuneko Politikak inplementatzeko.

Datu horiek ikusita, laugarren hipotesia egiaztaturik gelditzen da, eta, horren arabera, udalerriko biztanle kopurua funtsezko aldagaia da Aukera Berdintasunari loturiko ekimenen garapenerako.

### 5. hipotesia.

“Udalerrien mankomunitatea, izan ere, udalek Aukera Berdintasunaren arloan egiten duen lana sustatzen duen administrazio-irudia da”.

Aukera Berdintasunari loturiko jarduerak udalerrri guztien %4an baino ez dira egiten mankomunitatearen bidez.

Datu hori jakin ondoren, ukatu egiten da mankomunitateak Bizkaiko udaletan Berdintasunaren arloko jarduerak sustatzen dituela dioen hipotesia.

## 5. LABURPENA ETA ONDORIOAK

Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunaren arloan, gogor ari dira lanean Herri Administrazioak, eta arlo horretan, apurka-apurka, sektore pribatuko enpresak ere sartzen ari dira.

Euskadin, sexuen arteko Berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko baliabideak arautzeko edo bultzatzeko Estatuko Legea onetsi baino lehen, Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea onetsi zen, eta horren helburua hauxe da: *“berdintasunezko gizarterako aurrerapausoak ematea, pertsona guztiak askatasuna izateko bai arlo publikoan eta pribatuan, eta horrela, euren gaitasun pertsonalak garatzeko eta mugarik gabeko erabakiak hartzeko (sexuaren araberako rol tradizionalak ezarritako mugak); gizarte horretan emakumeen eta gizonen jokabideak, helburuak eta beharrizanak aintzat hartu, baloratu eta sustatu egingo dira”*<sup>15</sup>.

*“Bizkaiko udaletan emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasuneko Politikek duten egoera eta ezarkuntza maila ezagutzea”* horixe da ikerketaren helburu nagusia; beraz, ikerketaren helbururako hurbilketa egin ondoren (dokumentu-azterketaren bidez), helburu zehatzak ezartzen dira.

---

<sup>15</sup> Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea. Zioen azalpena, III.

Helburu horiek guztiak, planteaturiko hipotesien kasuan bezala (4. kapituluaz aztertutako hipotesiak), bete egin dira ikerketa honetan.

Ikerketaren helburu guztiak betetzeko, teknika metodologikoak aztertu dira, eta, horren ondorioz, erabaki zen onena honako honen arteko konbinazioa zela:

- **metodologia kuantitatiboa**, ikerketan sartzen diren unitateen inkestak eginez;
- **metodologia kualitatiboa**, adituen mahaia eratuz, eta mahai horrek balioztatu egin behar ditu aurreko fasearen ondorioz azaldutako jarduketaren proposamenak.

Metodologia kuantitatiboa aztertu ondoren, eta %89.28ko erantzun-indizearekin, hau da, 112 udalerritatik 100en erantzunarekin, estatistika-emaitzak aztertu eta horiek gai-blokeetan jaso ziren.

Txostena egituratzeko orokorretik (Bizkaiko Foru Aldundiak Berdintasunaren arloan dituen egiturak) berezira joan gara, hau da, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietan Emakumearentzat dauden arloetako ardura duten pertsonetara.

Ordena horri jarraituz, ikerketaren emaitzak aurkeztuko ditugu.

## ] Mugape geografikoa

Bizkaiko Lurralde Historikoa 7 eskualdetan egituraturik dago; horietariko bakoitzean udalerrri kopuru jakina dago. Udalerrri gehien duen eskualdea Bilbo Handia da, 26 udalerrirekin, eta gutxien duen eskualdea, berriz, Enkarterri, 10 udalerrirekin.

## ] Biztanleria

Bizkaiko udalerrrien %72.32k 5.000 biztanle baino gutxiago dituzte. Horrek alde txarrak ditu alderdi askotan, gainerako %27.68ari dagokionez (5.000 biztanletik gorako udalerrriak); izan ere, 5.000 biztanletik beherako udalerriek ez dituzte baliabide ekonomiko, material eta giza baliabide berberak, eta zenbait arlo (esate baterako, Gizarte Ongizatea edo Kultura) Mankomunitateari eskuordetu behar izaten dizkiote. Era berean, egoera txarragoa dute udalaren barruan arloak sortzeari dagokionez, eta Emakumearen arloa horren adibide argia da, hau da, Emakumeen eta Gizonen Aukera berdintasunaren alde lan egiten duen arloa.

## ] Politika

Bizkaiko udalerrrien %79.46aren gobernuan Euzko Alderdi Jeltzalea dago, eta beste %6.25ean Eusko Alkartasunarekin koalizioan gobernatzen du; gainerako udalerrrien %14.29aren gobernu beste alderdi politiko batzuek, auzo-elkarteek eta abarrek dute.

## Udalen egitura

Udalen zentzuzko egitura hauxe da: Alkatetza, Gobernu Batzordea eta Zinegotzigoak, eta azken horietatik Arloak eta, kasu batzuetan, Arlo bakoitzeko Informazio Batzordeak sortzen dira, batez ere faktore ekonomikoen eraginez; hala eta guztiz ere, udal askok ez dute halako arlo eta informazio batzorderik (Zinegotzigoetatik sortutakoak).

## Bizkaiko Foru Aldundiko egiturak

Bizkaiko udaletan Aukera Berdintasunean diharduten arloak aztertu baino lehen, Bizkaiko Foru Aldundiko Generoko Politiken Arloaren ezagupen maila aztertu dugu (Bizkaiko udaletan Emakumeari eta Berdintasunari loturiko gaietan ardura duten pertsonen dagokienez), berori baita Aukera Berdintasunaren arloko foru organo nagusia; halaber, pertsona horiek Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako eta Generoko Politiketarako Foru Planari buruz duten ezagupena aztertu da, hori erreferentea baita udalerrietan Udal Plana sortzeko.

**Generoko Politiken Arloa** ezagutzeari dagokionez, inkestari erantzun dioten pertsonen %89.54k erantzun dute ezagutzen dutela, eta gainerako %10.46k erantzun dute ez dutela ezagutzen.



Egindako estatistika-azterketaren arabera, egitura horren ezagupenean eragina duten aldagaiak honako hauek dira:

<b>Udaletan Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren alde lan egiten duen administrazio-egitura egotea:</b> Arloa ezagutzen ez duen pertsonen %91.7 halako administrazio-egiturarik gabeko udaletan ari dira lanean.	<b>Udalerriko biztanle kopurua:</b> ezagutzen ez duten pertsonen %91.7 bost mila (5.000) biztanletik beherako udalerrietan bizi dira.	<b>Aukera Berdintasuneko Udal Planaren onespena:</b> inkestari erantzun eta Arloa ezagutzen ez duten pertsonen %100 Aukera Berdintasuneko Udala Plana onetsi barik duen udalen batean ari dira lanean.
--	---	--

**Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako eta Generoko Politiketarako Foru Plana** ezagutzeari dagokionez, hori ezagutzen duten pertsonen ehunekoa %78.47koa da, eta gainerako %21.53k ez dute ezagutzen.

Egindako estatistika-azterketaren arabera, Foru Plan honen ezagupenean eragina duten aldagaiak honako hauek dira:

<b>Udalean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren alde lan egiten duen administrazio-egitura egotea:</b> Foru Plana ezagutzen ez duten pertsonen %100 halako administrazio-egiturarik gabeko udaletan ari dira lanean.	<b>Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Udal Planaren onespena:</b> inkestari erantzun eta Foru Plana ezagutzen ez duten pertsonen %100 Aukera Berdintasuneko Udala Plana onetsi barik duen udalen batean ari dira lanean.
---	--

Berdintasunaren arloko foru egituren ezagupen maila aztertu ondoren (ikerketaren helburuaren egoerara hurbiltzeko), Aukera Berdintasunaren arloan dauden UDAL EGITUREN azterketa egin dugu.

### ┆ **Aukera Berdintasuneko egiturak**

Bizkaian, Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasuna lortzeko eta emakumeen bizi-baldintzak hobetzeko helburua duten **35 administrazio-egitura** daude. Horrenbestez, egitura hori udalerrien %35ek dute, eta gainerako %65ek ez dute halakorik aurreikusita.

35 egitura horietatik **%42.9 independenteak** dira. Gainerako %57.1 udalerriko beste arlo batzuen menpe daude. Hain zuzen ere:

- **%80 Ongizate edo Gizartekintza Arloaren** menpe daude
- **%15 Kultura Arloaren** menpe daude
- **%5 Gobernu Batzordearen** menpe daude

Bizkaian aztertu diren udaletan Emakumearen Berdintasunean diharduten arloen %80 Gizarte Zerbitzuen barruan daude, eta horrek agerian jartzen du udal askotan Emakumeari loturiko gaiak bigarren mailan uzten direla; gainera, aditzera ematen du ez dagoela baliabiderik zenbateko ekonomiko nahikoa duten erakunde autonomoak eta horien finkapenerako gaituriko langileria sortzeko.

Aukera Berdintasuneko Politiken implementaziorako eta horretan diharduten eremuen finkapenerako gabezia horiei lotuta, honako puntu hauek aipa daitezke:

/ Elkarrizketaturiko 100 pertsonetatik 17k soilik dute (ikerketan parte hartu duten udaletan **elkarrizketaturiko pertsona guztien %17**) **"Aukera Berdintasuneko Teknikaria"** lanpostua.

Udalerrri batzuetan, Aukera Berdintasuneko teknikari bat kontratatzeko, INEMera (Toki Korporazioak) jotzen dute; pertsona horiek 6 hilabeterako kontratatzen dira, eta hurrengo 6 hilabeteetan lanpostua hutsik egoten da, eta horrela. Horrek agerian jartzen du Bizkaiko udaletan lanpostu horiek guztiz behin-behinekoak direla eta, gainera, ezinezkoa dela Aukera Berdintasunaren arloko proiektu iraunkorrik egitea.

/ Azterturiko udalen %43k **aurrekontu partida berezia** dute, udalerrian Aukera Berdintasunaren sustapenari zuzendutako jarduerak garatzeko.

Horrenbestez, Emakumearen arloak dituzten udalerriak baino ugariagoak dira Aukera Berdintasunerako jardueretarako aurrekontua duten udalerriak, arlo hori eduki ez arren. Alde batetik, agerian gelditzen da udalek Aukera Berdintasunari loturiko gaien aldeko apustua egiten dutela, eta bestetik, apustu hori ez dela finkatzen arloa sortuta eta berori zuzentzeko langile gaituak kontratatuta.

Hain zuzen ere, aurrekontu partida berezia Aukera Berdintasunaren garapenera (ekintza positiboen bidez) bideratzen duten udalen %79.1ek horretan diharduen administrazio-egitura dute. Hala eta guztiz ere, gainerako %20.9k esan dute, Berdintasuna sustatzeko aurrekontua eduki arren, oraindik ez dutela horretarako arlo berezirik sortu.

**Sexuen arteko Berdintasunaren alde lan egiten duten udal egituren** azterketarekin jarraituz, egitura horien funtzioak adierazi dira:

- . Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasuna sustatzea eta Berdintasuneko Politikak inplementatzea
- . Aukera Berdintasuneko Udal Plana garatzea
- . Udaleko langileei eta hiritarrei Generoko Berdintasunari buruzko informazioa, heziketa eta sentsibilizazioa eskaintzea
- . Udalarekin eta udalerriko elkarteekin Berdintasunaren aldeko jarduera komunitarioak sustatzea
- . Sexista ez den hizkuntzaren erabilerarekiko sentsibilizazioa
- . Emakumea lan-merkatuan sartzeko sustapena egitea
- . Emakumeen arteko elkartegintza sustatzea
- . Tratu txarrak jasan dituzten emakumeei aholkularitza juridikoa nahiz psikologikoa eta laguntza ematea

Egitura horien **ezarkuntza mailari** dagokionez, horien %45.71k 2000. urtea baino lehenagotik dihardute (Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako eta Generoko Politiketarako lehenengo Foru Plana onetsi zen urtea); gainerako %54.29 geroago garatu ziren.

Emakumeen arlo bereziaren ezarkuntzan eragina duten aldagaiak aztertzean, hiru aldagai kausal daude:

<b><i>Udalerriko biztanle kopurua:</i></b> egindako estatistika-azterketan ateratako ondorioaren arabera, faktore erabakigarria da halako arloen ezarkuntzan	<b><i>Udalaren aurrekontua:</i></b> aldagai hori Emakumearen arloa ezartzearen eragile garrantzitsua da, 600.000 eurotik beherako aurrekontua duen udal bakar batek ere ez baitu arlo hori sortu	<b><i>Udal gobernuan dagoen alderdi politikoa:</i></b> Bizkaiko mapa politiko berezia aintzat hartuta, alderdi politiko guztiek (EA izan ezik) Emakumearen administrazio-arloa sortu dute
--	--	---

### **] Aukera Berdintasuneko Udal Planak**

Aukera Berdintasunaren arloko udal egituren azterketa egin ondoren, AUKERA BERDINTASUNEKO UDAL PLANAK aztertu dira.



Lehenengo hurbilketan ikusi denez, **azterturiko udalerrien %28k onetsita dute Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Udal Plana**, eta gainerako %72k ez du halakorik egin.

Hala eta guztiz ere, Plana onetsi barik dutenen %36.1ek etorkizunean egiteko asmoa dute.

Emakumeen bizi-baldintzak hobetzeko sortu diren egituren kasuan bezala, **Berdintasuneko Udal Planaren onespena eragin duten aldagaiak** aztertu dira. Azkenik, honako hauek ezarri dira:

<b>Udalerriko emakumeen bizi-baldintzak hobetzen dituen <i>administrazio-egitura egotea</i>:</b> Aukera Berdintasuneko Udal Plana onetsi duten udalerrien %92.90ek Emakumearen edota Berdintasunaren egitura dute.	<b><i>Udalerriko biztanle kopurua</i>:</b> Udal Plana onetsita duten udalerrien %77.70ek 5.000 biztanle baino gehiago dute.	<b><i>Udalaren urteko aurrekontu ekonomikoa</i>:</b> Aukera Berdintasuneko Plana duten udalerrien %75ek 6.010.121 €-tik gorako urteko aurrekontua dute.
--	---	---

## ] Aukera Berdintasuneko Politikak

Aukera Berdintasunaren azterketan beste pauso bat emanez, egindako hurrengo azterketa AUKERA BERDINTASUNEKO POLITIKEI buruzkoa izan da. Aukera berdintasuneko politikak erakunde publikoak



abiaturiko neurri politikoak dira eta euren helburua emakumeen eta gizonen arteko berdintasun ezari loturiko egoerak arintzea nahiz zuzentzea da.

Inkestetan lorturiko erantzunen arabera, udalerrien %50ek Aukera Berdintasuneko Politikak implementatu dituzte.

Aurreko kasuetan bezala, Aukera Berdintasuneko Politiken implementazioa zenbait aldagairen arabera da:

**Emakumearen inguruan diharduen *administrazio-egitura* egotea:** Aukera Berdintasuneko Politikak garatzearen eragile zuzena da. Horrela, halako egiturarik ez duten udalen %88.60k ez dute inoiz ere Berdintasuneko Politikarik implementatu

***Aukera Berdintasuneko Udal Planaren* onespena:** aldagai honek ere baldintzatu egiten du Aukera Berdintasuneko Politiken implementazioa; izan ere, halako Planik onetsi ez duten udalen %100ek ez du inoiz Berdintasuneko Politikarik implementatu

***Udalerriko biztanle kopurua:*** orain arte egindako gainerako azterketa kausal guztien moduan bezala, aldagai honek ere eragina dauka Aukera Berdintasuneko Politiken implementazioan. Izan ere, inoiz ere Aukera Berdintasuneko Politikarik implementatu ez duten udalen %90ek 5.000 biztanletik beherako biztanleria dute

***Udalaren urteko aurrekontu ekonomikoa:*** aldagai honek ere eragina dauka Aukera Berdintasuneko Politiken implementazioan; izan ere, halako politikak implementatzen dituzten udalen %68k 3.005.060 €-tik gorako urteroko aurrekontua dute

***Udalerriko emakumeen elkartegintza maila:*** aldagai honek ere eragina

dauka Aukera Berdintasuneko Politikak inplementatzeko orduan; izan ere, emakume-elkarteak dituzten udalen %72k Aukera Berdintasuneko Politikak inplementatzen dituzte

Gainera, udaletako arlo politiko eta maila guztietan generoko ikuspegia sartzeari dagokionez, hau da, berdintasuneko politiken **zeharkakotasunari** dagokionez, inkestari erantzun diotenek emandako erantzunen azterketatik ondorioztatzen denez, udalen %88.6an landu egiten da ikuspegi hori. Halaber, generoko ikuspegia gehien sartzen duten arloak Gizarte Ongizatea, Enplegua eta Heziketa eta Kultura dira, eta gutxien sartzen dutenak, ostera, Hirigintza eta Ingurumena.

Hori guztia ikusita, Berdintasun Politikei buruzko galderei emandako erantzunak aztertu ondoren, esan daiteke udalik gehienek Emakumeen eta Gizonen arteko benetako Berdintasuna sustatzeko ekintzak egiten dituztela; hala eta guztiz ere, kasu askotan, ez dute zeharkako neurri politiko zehatzik inplementatzen, oraingo desorekak zuzentzeko, eta gainera, ezein mailatan ere ez dago berdintasunari buruzko benetako jabetzerik.

Goian ikusitakoaren arabera, Aukera Berdintasunaren alde egiten diren ekintzetatik, neurri politikotzat har daitezkeen bakarrak honako hauek dira:

- udalaren dokumentazioaren ikuskapena eta, une horretatik aurrera, sexista ez den hizkuntzarekiko egokitzapena egitea;
- sexista ez den hizkuntzaren gidaliburua egitea, hizkuntzaren eta komunikazioaren egokitzapena eginez.

Neurri horiek politikoak dira, horien erabilera derrigorrezkoa baita Udalean lan egiten duten langileen artean, sexistak ez diren hizkuntza nahiz komunikazioa erabiltzera behartzen duen neurri politikoa onesten denetik.

Aukera Berdintasuna sustatzeko gainerako ekintzak, izan ere, Udaleko arlo bakoitzaren barruko ekintza positiboak dira, eta bete beharreko helburura bideraturik daude. Horrela, betetze hori hitzaldien, ikastaroen, hizketaldien, jardunaldien edo erakusketen bidez gauzatzen da.

Azkenik, Bizkaiko udalerrien azalpenean aipatu den mankomunitatearen irudiari dagokionez, Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasuneko Politiken kasuan, egitura horrek ez dauka eraginik; izan ere, aztertutako udalerrien %4.2k soilik egiten zituzten Generoko Berdintasuna lortzeko ekintzak, mankomunitatearen barruan. Gainerako udalerrien %95.8k bakarka egiten zituzten.

## 6. JARDUKETA PROPOSAMENAK

Bizkaiko udaletan Aukera Berdintasunaren alde arduraldi osoz edo partzialez lan egiten duten pertsonak emandako informazioa aztertu ondoren (Aukera Berdintasuneko teknikariak, Emakumearen arloko zinegotziak, Gizarte langileak, Toki Garapeneko eragileak, Kulturako teknikariak, etab.), edo bertako arduradun politiko nagusiek emandako informazioa aztertu ondoren, informazio horren estatistika-azterketa egin eta jarduketa proposamen jakinak aurkeztu dira; Ahaldun Nagusiaren Bulegoko Idazkaritza Tekniko Nagusiko Generoko Politiken Arlotik garatu egin daitezke proposamen horiek, egon daitezkeen desbideratzeak zuzentzeko eta bete gabeko helburuak betetzeko.

Izenburua eta, beraz, ikerketa prozesu osoa gidatu duen jarraibidea berreskuratuz ("Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuneko Politikak Bizkaiko udaletan"), Bizkaiko Foru Aldundiak Aukera Berdintasuneko Politikei buruz emandako definizioa adieraziko dugu: *"Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunaren arloko politikak jorratu beharreko neurriak dira, ez bakarrik justizia sozialeko irizpideak aintzat hartuta, baita generoko dimentsioaren kudeaketak giza baliabideen politikan duen garrantzia kontuan hartuta ere, enpleguko meatoki berriei, negozio aukerei eta, azken batean, enpleguaren kalitate nahiz lehiakortasun handiagoari dagokionez. Azken batean, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna balio etikoa eta balio ekonomikoa da"*<sup>16</sup>.

<sup>16</sup> Bizkaian Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasuneko eta Generoko Politiketako Foru Plana onesteko erabaki-proposamena. 2000/05/30 Foru plana onesteko erabakia.

Era berean, EMAKUNDEk Ekintza Positiboko Plan baten gomendioaren justifikazioan esandakoaren arabera, Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, UDALERRI mailan, udal eskumena ezartzen du, era guztietako jarduerak sustatzeko eta zerbitzu publiko egokiak emateko, eta horrela, auzotarren beharrianak eta helburuak betetzeko, eta emakumeen sustapena udal ekintzaren barruko arlo bat da (28. art.).

Horrenbestez, agerian gelditzen da gaiari buruz jarduteko legezko ahalmena eta erantzukizun politikoa dagoela.

Azaldutakoaren arabera, ikerketatik ateratzen den lehenengo ondorio nagusia Aukera Berdintasuneko Politiken inplementazio maila baxua da, horiek udaletatik bi norabidetan bideratzen diren neurri politikotzat hartuta:

- Udaleko langileenganantz;
- Udaletik hiritarrengantz.

Horrenbestez, ondoren Aukera Berdintasunari buruzko gomendio batzuk aurkeztuko ditugu, Bizkaiko udaletako eragin-eremuen arabera sailkatuta.



## 1. ARLOA: UDALETAKO LANGILERIA

Bizkaiko udaletan landu beharreko lehenengo alderdia, izan ere, bertako langile guztiak jabeaztearen ingurukoa da, Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunari dagokionez.

Udaletako langileak jabeaztea lehenengo pausoa da, generoko ikuspegia arlo eta maila guztietan sartu ahal izateko; izan ere, ikerketan lorturiko datuek agerian jarri dutenez, Berdintasunaren arloan ez dago lankidetzara maila handirik udaletako arlo guztietan, hori arlo batzuen artean baino ez baita gertatzen.

Horri dagokionez, ikerketan gabezia batzuk ikusi dira:


- Azterturiko udal guztien artean, 9tan bakarrik egin dira generoko ikuspegia sartzeko ekintzak, honako hauek bezalako ekintzen bidez:
  - Udaletako barne dokumentazioa ikuskatzea, hori sexista ez den hizkuntzaren erabilerara egokitzeko;
  - hizkuntza eta komunikazio ez-sexistaren gidaliburua sortzea.
- Udalen %10.46k ez dakite Bizkaiko Foru Aldundian Generoko Politiken Arloa dagoenik.
- Udalen %21.53k ez dakite Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako eta Generoko Politiketako Foru Plana dagoenik.




Datu horiek agerian jartzen dute udal batzuek ezin dutela Aukera Berdintasunean lan egiten hasi, oinarrizko heziketarik eta erreferentziarik gabe.

Horrenbestez, udalen barruko gomendioak edota jarduketa proposamenak ondoren adierazitakoak dira:

### 1. proposamena.



### 2. proposamena.



### 3. proposamena.

**Aukera Berdintasunari buruzko heziketa eskaintzea Udaletako langileei; horretarako, barruko langile gaituak erabiliko dira, edo bestela, Aldundiak azpikontratatu egingo ditu langile horiek; horri dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiaren lana eta Foru Plana jorratuko dira, lanpostu bakoitzean generoko ikuspegia sartzearen erreferentziatzat.**

**HELBURUA**

**Udaletako langileak Aukera Berdintasunean hezte eta Generoko Politiken Arloaren eta Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasuneko eta Generoko Politiketako Foru Planaren oraingo ezagupena handitzea.**


### 4. proposamena.

**“Hizkuntzaren erabilera ez-sexistaren eskuliburua” sortzea; hori udaletako lanpostu politiko eta tekniko guztietan hedatzea, horren onespenerako jarraibide argiekin**

**HELBURUA**

**Udaletako langileria sensibilizatzea, sexista ez den hizkuntzaren erabilerari dagokionez**

## 5. proposamena.



## 2. ARLOA: EMAKUMEAREN EDOTA AUKERA BERDINTASUNAREN

### ARLOAK

Ikerketan eman behar den bigarren pausoa, Udaletan Aukera Berdintasuneko gaitan lan egiten duten pertsonen Aldundiko Generoko Politiken Arloari buruz duten ezagupena aztertu ondoren, Berdintasunaren arloko udal egiturak aztertzea izan da.

Egitura horiei dagokienez, aurkitu diren gabeziak honako hauek izan dira:

- Azterturiko udalen %35ean bakarrik dago Emakumeen bizi-baldintzak hobetzeko lan egiten duen administrazio-egitura.

- Independenteak ez diren Aukera Berdintasuneko administrazio-egituren %57.1etik %80 Gizarte Ongizatearen menpe daude.
- Inkestari erantzun dioten 100 udalerrietatik 17an soilik dago Aukera Berdintasuneko teknikaria, kasu batzuetan, hori INEMek (Toki Korporazioak) arautzen du aldi mugatuan eta lanpostu finkorik sustatu gabe.
- Udalerrietako biztanle kopuruak baldintzatu egiten du Aukera Berdintasunera bideraturiko administrazio-egitura baten sorrera.

Zuzenketak jaso behar dituzten arloak zerrendatu ondoren, honako gomendio hauek egin behar dira:

#### 6. proposamena.

**Administrazio-egitura baten sorrera sustatzea; horren lana halako egiturarik ez duten udaletan Aukera Berdintasuna sustatzea izango da**

**HELBURUA**

**Aukera Berdintasunerako egituren ezarkuntza handiagoa lortzea**

## 7. proposamena.

**Berdintasunaren eta Emakumearen arloak zuzentzeko langileria gaituaren kontratazioa eta langile horien iraupena arautzea; halaber, aldi baterako kontratazio bideak murriztea, hasitako proiektuei jarraipena eman ahal izateko**

**HELBURUA**

**Aukera Berdintasuneko teknikari edota talde gaituak lortzea, lanak ondo garatu ahal izateko**


## 8. proposamena.

**Aukera Berdintasunaren arloko administrazio-egituren independentzia sustatzea, Udaleko beste arlo batzuei dagokienez (adibidez, Gizarte Ongizatea edo Kultura); horrela, Generoko Politiken Arloa Ahaldun Nagusiaren Bulegoaren menpekoa den bezala, arlo horiek ere Alkatetzaren menpekoak baino ez dira izango**


**HELBURUA**

**Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna gizarte zerbitzua izateari buruzko oraingo pertzepzioa ezabatzea**

## 9. proposamena.



## 10. proposamena.





### **3. ARLOA: AUKERA BERDINTASUNEKO PLANAK**

Aukera Berdintasuneko Planen inguruko oraingo egoeraren arabera, azken 5 urteotan udalen %28an Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Udal Plana onetsi da.

Abenduaren 21eko 249/2004 FORU DEKRETUAK (5.000 biztanletik behera duten eta Aukera Berdintasunaren sustapenari loturiko ekintzak bultzatzen dituzten Bizkaiko udalerriei 2005ean dirulaguntzak emateari buruzko dekretua), dirulaguntzak ematen dizkie ezaugarri horiek betetzen dituzten udalerriei. Hala eta guztiz ere, dirulaguntza horretatik kanpo uzten ditu 5.000 biztanleko kopurua ozta-ozta gainditzen duten udalerriak, eta udalerririk, halako dirulaguntza barik, ez dute aukerarik Aukera Berdintasuneko ekintzak garatzeko.

Berdintasuneko Planen urteroko onespina eta horren aldagai kausalak aintzat hartuta, arlo honetako gomendioak honako hauek dira:

## 11. proposamena.

**Etorkizunean Aukera Berdintasuneko Planak egiteko dirulaguntzak eta arlo horretako ekintzetarako dirulaguntzen bideragarritasuna aztertzea, dirulaguntzotarako irizpideak, udalerrietako biztanle kopurua ez ezik, giza baliabideak, ekonomikoak eta materialak ere badirenean**

**HELBURUA**

**Baliabiderik ez duten udalerriei ere dirulaguntzak ematea, horiek barik ezinezkoa baitute Aukera Berdintasunaren alde lan egitea**


## 12. proposamena.

**Aukera Berdintasuneko Udal Planen lanketan partaidetza soziala sustatzea**

**HELBURUA**

**Hiritarren inplikazioa lortzea, Aukera Berdintasunaren arloan**

### 13. proposamena.



## 4. ARLOA: AUKERA BERDINTASUNeko POLITIKAK


HERA 2001 fundazioak definizio hauxe ematen du Aukera Berdintasuneko Politikei buruz: "erakunde publikoak emakumeen eta gizonen arteko gizarte desberdintasuneko egoerak arintzeko eta zuzentzeko abiaturiko neurri politikoak". Definizio hori aztertutako udalerrian Berdintasuneko Politikei buruz emandako erantzunekin kontrastatuz, esan daiteke udal horiek Berdintasun Planen barruko

ekintza positiboak egiten direla, emakumeen eta gizonen arteko desorekak arintzeko, baina ez dira neurri politiko zehatzak garatzen, guztiongan eragina dutenak eta denon konpromisoa eskatzen dutenak.


Horrela, emakumeen eta gizonen arteko gizarte desberdintasunak arintzeko neurriak Bizkaiko udalen arlo guztietatik inplementatu beharko lirateke, baita udaletako organismo autonomoetatik ere.

Horretarako, zenbait gomendio edo jarduketa proposamen aurkezten dira


#### **14. proposamena.**



### 15. proposamena.



### 16. proposamena.



## **5. ARLOA: GIZARTE PARTAIDETZA**

Hiritarren partaidetzak udalerrri barruko bizitzaren arlo guztietan duen garrantzia kontuan hartuta, ezin da ahaztu horiek Berdintasuneko Politiken inplementazioan duten eginkizuna, lagungarriak izan baitaitezke udalerrriko emakumeen eta gizonen arteko benetako Aukera Berdintasuna lortzeko.

Horrenbestez, hiritarren partaidetzari dagokionez, jarduketa proposamenak honako hauek dira:

### **17. proposamena.**

**Udalaren heziketa  
sustatzea, hiritarrak  
Aukera  
Berdintasunarekin  
sentsibilizatzeko  
kanpainak abiarazteko,  
arlotan buruzko  
jardunaldiak,  
hizketaldiak, hitzaldiak  
eta abar eginez, hori  
lagungarria baita  
hiritarrak jabearazteko**

**HELBURUA**


**Hiritarren jabearazte  
eta sentsibilizazio  
maila handia lortzea,  
Aukera  
Berdintasunaren  
arloan**



- Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 21eko 250/2004 FORU DEKRETUAK 2005ean **Emakume Elkarteei eta irabazi asmorik gabeko beste Erakunde** batzuei emandako dirulaguntzak arautu ditu; horiek emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna eta generoko politikak sustatzeko jarduera-proiektuak garatu dituzte. Hala eta guztiz ere, elkartegintza maila adierazten duen datuaren arabera, azterturiko udalerrien %54.70ean Emakume Elkarteak daude, eta gainerako %45.3an ez.

Hori jakinik, honako proposamen hauek egiten dira:

#### 18. proposamena.



### 19. proposamena.

**Baserri inguruan bizi diren emakumeen partaidetza sustatzea, Aukera Berdintasuneko ekintzen inplementazioan; izan ere, udalerrri batzuetan ikusi den bezala, baserri inguruko emakumeen arazoak faktore garrantzitsuak dira, Emakumeari buruzko gaietan parterik ez hartzeari dagokionez**

**HELBURUA**

**Emakume guztien inplikazioa lortzea, horiek edozein ingurutan bizi arren, Aukera Berdintasunaren lorpenean**

### 20. proposamena.

**Udalerriko emakumeen laneko eta familiako etxebizitza bateratzeko aukera ematen duten udal egituren sorrera sustatzea (udal haurtzaindegiak, etab.)**

**HELBURUA**

**Udaletako emakumei laneratzeko erraztasunak ematea, euren familia baldintzei kalterik egin gabe**

Estatistiken bidez lorturiko informazioa aztertzeetik eskuraturiko jarduketa proposamenak edo gomendioak ez ezik, inkestan Aukera Berdintasuneko Politiken egoerari buruzko iritzia azaltzeko aukera ere eman zaie elkarrizketan parte hartu duten pertsonei.

Edukia ikerketan erabiltzearen eta estatistika-azterketa egin ostean ateratako ondorioen nahiz gomendioen aldetik izandako erabilgarritasunari dagokionez, garrantzitsuenak honako hauek izan dira<sup>17</sup>:

└ %14aren ustez, *Erakundeek ez dute laguntzarik ematen eta ez dute inplikaziorik* Aukera Berdintasuneko Politiketara. Udalak oraintsu hasi dira Berdintasunari buruzko gaiekin lanean, eta aholkularitza eta jarraibideak behar dute euren lana ondo egiteko.

└ %5ek *PAREKATUZ Sarea* "desagertzea" aipatu dute, horrela udalerrien arteko eta horien nahiz Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko loturak ere desagertu egin baitira.

└ %10ek Aukera Berdintasunari loturiko jarduerak abiatzeko *dirulaguntzak* aipatu dituzte. Euren ustez, 5.000 biztanletik gorako udalerriei Berdintasunaren arloko jardueretarako dirulaguntzak eman

---

<sup>17</sup> Inkestari erantzun dioten eta, gainera, egoerari buruzko iruzkin pertsona egin duten pertsonen %.

ezean, jarduera horiek urriagoak dira, eta horrela, Aukera Berdintasuneko Politiken inplementazioak behera egingo du. Orokorrean, udalerrri txikiei laguntza ematen zaie, baina gainerako udalerriei dirulaguntzak murriztuta.

└ %8k udalerrri txikien zailtasunak nabarmendu dituzte, horiek arazoak baitituzte Aukera Berdintasunari loturiko ekimenak abiatzeko. Barreiatze geografikoa eta horrek jarduera parte hartzeko pertsonak biltzeko dakartzan arazoak aipatu dira.

└ Elkarrizketaturiko pertsonen %4ren ustez, ez dago Aukera Berdintasunaren alde lan egin beharrik; pertsona horiek udalerrri txikietakoak dira eta, bertan, halako gaiak ez omen dute garrantzirik eta ez omen dago sexu desberdineko pertsonen arteko desberdintasunik.

└ %1en iritzian, Emakumearen administrazio-egitura sortu behar da Aukera Berdintasuneko ekintzak egiteko; izan ere, horien ustez, horretarako langileria aditua duen egitura berezia egon behar da.

└ %4k diotenez, arazo nagusia hiritarren partaidetzarik eza da, eta horrela, Berdintasunari loturiko gaiak ezin dira aurrera irten.

└ Elkarrizketaturiko pertsonen beste %4 batek laneko kolokatasuna eta Bizkaiko udaletan lan egiten duten Aukera Berdintasuneko teknikarien heziketa urria aipatu du; INEMen (Toki Korporazioak) bidezko kontratazio sistema, prestakuntza berezirik gabeko langileria eta kontratazio aldiaren hasitako proiektuen jarraipen eza aipatu dituzte.

└ %1en ustez, Euskara arloak udaletan ezartzeko modua adibidetzat hartu behar da, Aukera Berdintasunaren kasuan gauza bera egiteko.

Azkenik, elkarrizketaturiko pertsonen eta horiekin lan egin duen ikerketa taldearen ustez, Aukera Berdintasunaren arloan lan handia dago egiteko, harik eta politikariak, gizarte eragileak eta hiritarrak Berdintasunaren lorpenean benetan inplikatu arte.

Hala eta guztiz ere, oinarri sendoak daude finkatuta.

## 7. **BIBLIOGRAFIA**

- Anthony Giddens. (1994): SOCIOLOGÍA. Alianza Universal. Madril. 6. kapitulua. Género y Sexualidad.
- José Ignacio Ruiz Olabuénaga. (1999): Metodología de la investigación cualitativa. 2. edizioa. Deustuko Unibertsitatea.
- Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera berdintasunerako eta Generoko Politiketarako Foru Plana (2000-2003).
- Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera berdintasunerako eta Generoko Politiketarako Foru Plana (2004 – 2007)
- Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 legea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Plana (III. PAPME).
- Emakumearen Institutua. Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa.
- Emakumearen Euskal Institutua.



- Administrazio ez-sexistaren eskuliburua. Malagako Udaleko Emakumearen Arloa.
- Ahdun Nagusiaren Bulegoko Idazkaritza Tekniko Nagusiko Generoko Politiken Arloa.
- Madrileko Udaleko Emakumearen Batzordea.
- [www.fundacionmujeres.es](http://www.fundacionmujeres.es)
- <http://mujeres.universia.es>

## ERANSKINAK

### **1. eranskina: Taulak eta grafikoak**

#### **Taulen aurkibidea**

- 1. taula:** Elkarrizketaturiko pertsona kopuruaren arabera egindako inkesta kopurua ..... **18. or.**
- 2. taula:** Eskualde bakoitzean egindako inkesten ehunekoa ..... **19. or.**
- 3. taula:** Udalerriak biztanle kopuruaren arabera bilduta  
..... **23. or.**
- 4. taula:** Bizkaiko alkatetzen banaketa alderdi politikoaren arabera  
..... **24. or.**
- 5. taula:** Emakumearen Arloa ezartzeko data..... **41. or.**
- 6. taula:** Egitura kopurua biztanle kopuruaren eta ezarkuntza dataren arabera..... **44. or.**
- 7. taula:** Egitura kopurua aurrekontuaren eta ezarkuntza dataren arabera..... **46. or.**
- 8. taula:** Emakumearen aldeko administrazio-egitura, udal gobernuan dagoen alderdi politikoaren arabera..... **47. or.**
- 9. taula:** 80ko hamarkadan sorturiko arloen ezaugarriak..... **48. or.**
- 10. taula:** Aukera Berdintasunerako Udal Plana onesteko aurreikusitako epea..... **51. or.**
- 11. taula:** Lotura: Berdintasunerako Planaren onespena – udalaren aurrekontua..... **57. or.**
- 12. taula:** Aukera Berdintasunaren arloan zeharkakotasuna mantentzen duten arloak..... **64. or.**

**13. taula:** Jarduerak, egiten dituzten udalen %-aren arabera..... **75. or.**

### **Grafikoen aurkibidea**

**1. grafikoa:** Bizkaiko eskualdeak, horien barruko udalerrien %-aren arabera..... **22. or.**

**2. grafikoa:** Azterturiko udalerriek biztanle kopuruaren arabera duten banaketa..... **27. or.**

**3. grafikoa:** Azterturiko udalerrien urteko aurrekontua..... **27. or.**

**4. grafikoa:** Azterturiko udalerrien banaketa, Alkatetzan dagoen Alderdi Politikoaren arabera..... **28. or.**

**5. grafikoa:** Generoko Politiken arloaren ezagupen maila  
..... **30. or.**

**6. grafikoa:** Aukera Berdintasunerako Foru Planaren ezagupena..... **32. or.**

**7. grafikoa:** Emakumearen Berdintasunaren alde lan egiten duten egiturak..... **35. or.**

**8. grafikoa:** Emakumearen eta Berdintasunaren egituren mendekotasun maila..... **37 or.**

**9. grafikoa:** Emakumearen eta Berdintasunaren egiturak hartzen dituzten sailak..... **37. or.**

**10. grafikoa:** Emakumearen eta Berdintasunaren Arloak ezartzeko urtea ..... **43. or.**

**11. grafikoa:** Berdintasunerako udal Plana onestearen eta Emakumearen aldeko egitura egotearen arteko lotura ..... **53. or.**

**12. grafikoa:** Planaren eta biztanle kopuruaren arteko lotura..... **54. or.**

- 13. grafikoa:** Berdintasuneko Politikak implementatzen dituzten arloak ..... **62. or.**
- 14. grafikoa:** Berdintasuneko egitura egotearen eta Berdintasuneko politikak implementatzearen arteko erlazioa.....**68. or.**
- 15. grafikoa:** Berdintasuneko Politikak egitearen eta Berdintasuneko plana onestearen arteko erlazioa..... **69. or.**
- 16. grafikoa:** Berdintasuneko Politiken implementazioa, udal gobernuan dagoen alderdi politikoaren arabera..... **73. or.**
- 17. grafikoa:** Berdintasuneko Politikak egiteko modua..... **83. or.**

**2. eranskina: Galdeketa**



## **BIZKAIKO UDALETAKO AUKERA BERDINTASUNERAKO POLITIKEI BURUZKO GALDEKETA**

Bizkaiko Foru Aldundiko Ahaldun Nagusiaren Bulegoko Idazkaritza Tekniko Nagusiko Generoko Politiken Arloa ikerketa egiten ari da, Aukera Berdintasuneko Politikek gure lurralde historikoan duten egoera aztertzeko.

Ikerketa honen bidez, emakumeen eta gizonen Berdintasuneko Politikek udalerrri mailan duten egoeraren eta ezarkuntza mailaren erradiografia lortuko dugu; horrela, Aukera Berdintasunaren arloan lan egiten jarraitzeko aukera emango digun informazioa bilduko dugu.

**1.G Badakizu “Bizkaiko Foru Aldundiko Ahaldun Nagusiaren Bulegoko Idazkaritza Tekniko Nagusiko Generoko Politiken Arloa” dagoela?**

BAI	1
EZ	2
ED/EE	99

**2.G Badakizu “Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako eta Generoko Politiketarako Foru Plana” dagoela?**

BAI	1
EZ	2
ED/EE	99

**3.G Badago emakumeen bizi-baldintza hobetzeko edo emakumeei zuzendutako administrazio-egiturarik?**

BAI	1
-----	---

EZ	2	Igaro 11.G-ra
ED/EE		99

3.1.G Noiztik? .....

4.G Zein da administrazio-egitura horren izena?

"Generoko Aukera Berdintasunerako Unitatea"	1
"Emakumearen Arloa"	2
"Generoko Politiken Arloa"	3
Beste batzuk:	4
ED/EE	99

5.G Egitura independentea da ala sailen baten barruan dago?

. Egitura independentea	Izena:	1
. Sailen baten barruan	Sailaren izena:	2
ED/EE		99

6.G Zein dira administrazio-egitura horren funtzioak?

6.a.G .....

6.b.G .....

7.G Egitura horrek badu Aukera Berdintasunaren arloko lankidetzarik udaleko beste arlo edo sail batzuekin? (Zeharkakotasuna)

BAI	1
EZ	2
ED/EE	
Igaro 9.G-ra	
99	

8.G Zein arloekin? (Erantzun anitza)

. Gizarte Ongizatea	1
---------------------	---



. Enplegua eta Heziketa	2
. Emakumea	3
. Aisialdia eta Gazteria	4
. Beste batzuk: .....	0
ED/EE	99

**9.G Eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin?**

	BAI	1	
EZ		2	Igaro 11.G-ra
	ED/EE	99	

**10.G Azaldu lankidetzaren horren ezaugarriak eta berori garatzeko erabiltzen diren mekanismoak (bilerak, eragile espezializatua, etab.).**

10.a.G .....

.....

10.b.G .....

.....

**11.G Egiten du edo egin du Udalak emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasunaren aldeko politikarik?**

	BAI	1	
EZ		2	Igaro 17.G-ra
	ED/EE	99	

**12.G Zein sail edo arlotatik? (Erantzun anitza)**

. Gizarte Ongizatea	1
---------------------	---

. Enplegua eta Heziketa	<b>2</b>
. Emakumea	<b>3</b>
. Aisialdia eta Gazteria	<b>4</b>
. Beste batzuk: .....	<b>0</b>
ED/EE	<b>99</b>

**13.G Nolako jarduerak garatu ditu (Erantzun anitza)**

. Ikastaroak	<b>1</b>
. Hizketaldiak, hitzaldiak, eztabaidak	<b>2</b>
. Jardunaldiak	<b>3</b>
. Erakusketak	<b>4</b>
. Beste batzuk: .....	<b>0</b>
ED/EE	<b>99</b>

**14.G Garaturiko Aukera Berdintasuneko Politikak beste udalerrri batzuekin mankomunitatean kudeatu dira?**

	BAI	<b>1</b>
EZ	<b>2</b>	<b>Igaro 18.G-ra</b>
	ED/EE	<b>99</b>

**15.G Zeintzuekin?**

. Eskualdeko udalerrriak	<b>1</b>
. Beste eskualde batzuetako udalerrriak	<b>2</b>
ED/EE	<b>99</b>

**16.G Nola egituratzen dira harreman horiek (Igaro 18.G-ra)**

. Koordinatzaile baten bidez	<b>1</b>
. Aldian behingo bilerak eginez	<b>2</b>
. Noizean behingo bileren bitartez	<b>3</b>
. Ez dago egitura zehatzik	<b>4</b>
. Beste batzuk	<b>0</b>

**17.G Laster egiteko asmoa dago?**

BAI	<b>1</b>
EZ	<b>2</b>
ED/EE	<b>99</b>

**18.G Badu Udalak udalerrian Aukera Berdintasuna sustatzeko jardueren garapenerako aurrekontu partida berezirik?**

BAI	<b>1</b>	<b>Igaro 18.1.G-ra</b>
EZ	<b>2</b>	<b>Igaro 19.G-ra</b>
ED/EE	<b>99</b>	

**18.1.G Zein bitartetan dago aurrekontu hori?**

Erantzun zuzena: .....

< 600 €	600 – 1.800 €	1.800 – 3.000 €	3.000 – 6.000 €	6.000 – 15.000 €	> 15.000 €
<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>6</b>

**19.G Honako erakunde hauetarikoren batek ematen dio edo eman dio Udalari Aukera Berdintasuneko Politikak gauzatzeko dirulaquntzarik? (Erantzun anitza)**

. Europako erakundeak	1
. Emakumearen Institutua	2
. Estatuko beste erakunde batzuk	3
. Emakunde	4
. Beste organismo autonomiko batzuk	5
. Bizkaiko Foru Aldundia	6
. Bizkaiko Foru Aldundiak homologaturiko erakundeak edo enpresak	7
. Ez du dirulaguntzarik jaso	8
ED/EE	99

Beste batzuk:

.....

.....

.....

**20.G Nolanahi ere, zer deritzezu organismo horiek udalei emandako dirulaguntzei?**

Organismoak:		Oso txarra	Txarra	Hala-holakoa	Ona	Oso ona	ED/EE
20.1 G	. Europako erakundeak	1	2	3	4	5	99
20.2 G	. Emakumearen institutua (Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa)	1	2	3	4	5	99
20.3 G	. Estatuko beste erakunde batzuk	1	2	3	4	5	99
20.4 G	. Emakunde	1	2	3	4	5	99
20.5 G	. Beste organismo autonomiko batzuk	1	2	3	4	5	99
20.6 G	. Bizkaiko Foru Aldundia	1	2	3	4	5	99
20.7 G	. Bizkaiko Foru Aldundiak homologaturiko erakundeak edo enpresak	1	2	3	4	5	99

**21.G Onetsi du Udalak azken 5 urteotan emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Planik?**

BAI	1	Igaro 23.G-ra
EZ	2	Igaro 22.G-ra
ED/EE		99

21.1.G Zein urtetan? .....

22.G Badu onesteko asmorik?

BAI	1	Igaro 23.G-ra
EZ	2	Igaro 24.G-ra
ED/EE		99

23.G Esango zenuke zein diren Planaren jarraibide nagusiak eta zertan oinarriturik dagoen?

23.a.G.....

.....

23.b.G.....

.....

23.1.G Plan hori ona izan da udalerrian Aukera Berdintasuneko Politikak garatzeko?

BAI	1	
EZ	2	Igaro 23.1.1.G-ra
ED/EE		99

23.1.1.G Zergatik?

.....  
 .....

**24.G Noizko egingo duzue emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Plana?**

. Epe laburrean	<b>1</b>
. Epe ertainean	<b>2</b>
. Epe luzean	<b>3</b>
. Ez daukagu aurreikusita	<b>4</b>
ED/EE	<b>99</b>

**25.G Azkenik, badago emakume-elkarterik udalerrian?**

	BAI	<b>1</b>	
EZ	<b>2</b>	<b>Igaro 27.G-ra</b>	
	ED/EE	<b>99</b>	

**26.G Zenbat? (Igaro 28.G-ra)**

<b>1</b>	2-5 bitartean	6-10 bitartean	10 baino gehiago	ED/EE
<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>99</b>

**27.G Zergatik?**

. Inork eskatu ez duelako	<b>1</b>
. Baliabiderik ez dagoelako	<b>2</b>
. Hiritarren interesik ez dutelako	<b>3</b>
. Beste batzuk:	<b>0</b>
ED/EE	<b>99</b>



## IDENTIFIKAZIOKO DATUAK

---

28.G Udalerraren izena: .....

29.G Eskualdea:

Bilbo Handia	1
Enkarterri	2
Uribe Kosta	3
Durangoaldea	4
Busturialdea	5
Lea - Artibai	6
Arratia – Nerbioi	7

30.G Udalerriko biztanle kopurua:

20.000 biztanle baino gehiago	1
10.000-20.000 biztanle	2
5.000-10.000 biztanle	3
1.000-5.000 biztanle	4
1.000 biztanle baino gutxiago	5

31.G Udaleko udal enplegatu kopurua:

500 baino gehiago	1
101-500 bitartean	2
51-100 bitartean	3
10-50 bitartean	4
10 baino gutxiago	5

**32.G Udalaren urteko batez besteko aurrekontua:**

3.000 milioi pezeta baino gehiago / 18.030.363'1 €	<b>1</b>
1.000-3.000 milioi pezeta / 6.010.121'04-18.030.363'1 €	<b>2</b>
500-1.000 milioi pezeta / 3.005.060'52-6.010.121'04 €	<b>3</b>
100-500 milioi pezeta / 601.012'10-3.005.060'52 €	<b>4</b>
100 milioi pezeta baino gutxiago/ 601.012'10 € baino gutxiago	<b>5</b>

**33.G Udal gobernuan dagoen alderdi politikoa:**

EAJ/PNV	EA	IU	PSOE	PP	ARALAR	PNV - EA	Hirukoa	PP - PSOE	Beste batzuk:
<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>6</b>	<b>7</b>	<b>8</b>	<b>9</b>	<b>0</b>

**34.G Zer kargu daukazu Udalean?**

.....

**Elkarrizketatuaren iruzkinak:**

.....  
.....  
.....